



**Urriaren 28an  
hauteskundeak berriz**

**28**

Arano, Donamaria, Oitz, Zubieta eta Bertizaranako kontzejuetan maiatzean zerrendarik aurkeztu ez zelako, urriaren 28an egingen dira hauteskundeak.



**Igantziako XVII. Mendi  
Bizikleta Ibilaldia**

**36**

Irailaren 9an jokatu zen Igantziako XVII. Mendi Bizikleta Ibilaldia. Ez zen txapelketa izan, baina Asier Apezetxea aranztarra helmugaratu zen lehendabizikoa.

2007ko irailaren 20a • XXVII. urtea  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

## 03 Hala beharrez, etxetik urruti





# ORDOKI

altzariak



Larunbat goiz eta  
arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bittiria 26  
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27  
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



**FUTBOLA** GUSTOKO DUT

ETA **CANAL+** EN DENA DAUKAT

CANAL+ hilabetean

**19,95**  
€ tik hasita

Orain, eguneko partida bat  
opari bi hilabetez

Harpidetza egiteko etorri  
BORTZIRIAK  
Bidasoa, 45 • BERA  
edo 948 630 377ra delitu

**DIGITAL+**

**BORTZIRIAK, S.L.**





UTZITAKO ARGAZKIA

Eskualdean orain arte egin diren etorkinen bestak gure herrietako kulturanzitasunaren lekuko izan dira. Argazkia iaz Beran ateratakoa da, *Mugarik gabe* topaketaren hirugarren edizioan.

BAZTAN, BORTZIRIAK, MALERREKA ETA LEITZALDEAN

# Kultura ezberdinetatik etorritako ia 2.000 lagun bizi dira gure artean

**Ez bat eta ez bi, aunitz dira gure eskualdean bizi diren atzerritarrak. Arrazoi bat edo berteze bat tarteko, kasu gehinetan pobreziatik ihesi, bertze batzuetan bizi diren herrialdeko egoera makurretik eskapo, aukera berri baten bila, gero eta gehiago dira gure eskualdera datozenak. Bide horretatik joz, eskualdean kultura ezberdinetako zenbat lagun dauden jakin nahi izan dugu, eta datuak eta testigantza batzuk bildu ditugu. Datuei erreparatuz gero, batez ere, herri haundienetan bizi dira atzerritar gehienak: Elizondon, Donezteben, Beran, Etxalarren, Lesakan, Leitzaan... Zenbaitzuk momentu txarrak pasatzen dituzte honat etortzerakoan, etxeokak urruti utzi eta hutsetik hastea tokatzen baitzaie; bertzeetan, berriz, familia hemen sortu dute eta ez dute inongo arazorik izan. Eurek zer iritzi duten ere bildu nahi izan dugu erreportaje honetan, bertako jendearen harrera nolako izan den jakiteko.**

## ttipi-ttapa

Garai batean hemendik aunitz joan ziren kanpora egoera ekonomiko, sozial edo politiko hobe baten bila, Ameriketara artzain, Alpeetara, Europako herrialdeetara... Azken urteotan, aldiz, bertze tokietakoak dira gure herrira heldu direnak. Betidanik egon da gurean kultura desberdinetako jendea, baina batez ere, 80ko hamarkadatik aitzinera Europa barrenetik eta kanpotik etorritakoek igo zuten hemengo populazioa. Etorkinez solasean ari garela, herrialde pobreetatik datozenez eta maila sozioekonomiko baxua dutenez ari garela dirudi, baina ez, gure artean denetarik dago. Ttipi-Ttapa aldizkariak hartzen dituen Baztan, Bortziriak, Urdazubi-Zugarramurdi, Bertizarana, Malerreka eta Leitzaldeko datuak bildu ditugu, eta etorkinen kopurua 1.948koa dela ikusi dugu, gehienak Europar Batasunetik etorritakoak (1.235), baina Hego Ameriketatik etorriak ere aunitz dira (533). Herriz-herriko datuak aintzat har-

tuz, agerian da herri haundiatarako duten joera, horietan aurkitu baitute bizitzeko eskaintzarik zabalena, lan aldetik zein etxebizitzaz aldetik.

Datuei erreparatzen hasi aitzinetik, komeni da jakitea erroldatan Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan bizi den jendea, orohar, frantziartzat hartu dituztela datu emaileek. Gure sailkapena, ordea, euskal kultura ez dutenak kontuan hartuz egiten saiatu gara, eta beraz, Euskal Herriko zazpi lurraldeetatik etorritakoak ez dira taula honetan sartzen. Bertze kultura duten zenbat etorri diren bildu nahi izan baitugu. Halere, zehaztasuna zaila denez, Malerrekaren kasuan Ipar Euskal Herriko datuak Frantziako datuekin sartuak daude, baita Baztanen, Leitzaldean, Urdaubizin eta Zugarramurdin ere.

Bertzalde, datuak herriz herri xehetasun guztiarekin jasotzea ezinezkoa da, hainbat faktore daudelako tartean, hala nola, legalitatearen kontua. Horrek zenbait atzerritar paperik gabe dagoela adierazten du.

Sergio Paniagua duela zazpi urte ailegatu zen Iruñera Guatemalatik, eta gero Berara. Medikua da eta horretan egiten du lan, Osakidetzarentzat eta kontsulta propioan. Etorri aitzinetik ongi antolatu zuen guztia, «Guatemalan ere euskaldun aunitz dagoelako, eta Guatemalako jendearen eta euskaldunen artean lotura dago. Hori izan zen honat etorri izanaren arrazoi nagusia. Bihotzeko kontuek ekarri ninduten. Ez nuen inongo problemarik izan paperekin».

Hagitx bertzelakoa da Abraham eta Lucia senar-emazte bolibiarren kasua. Bolibiatik joateko arrazoi

nagusia ekonomia izan zen, «gure herrialdean egoera ekonomikoa hagitz gaizki dago». Lucia etorri zen lehenbizi, «ahizpa Etxalarren zegoen ordurako, eta ni zortzi hilabeteren buruan etorri nintzen. Urte bat eta zazpi hilabete geroago Berara joan nintzen». Xaharrak zaindu eta etxeetan egiten du lan, eta gustura dago, baina Bolibian utzitako lau seme-alabak gogoan: «sorteria uztea zaila da, gure parte bat han gelditzen delako». Abraham senarra urtebete beranduago etorri zen. Bolibian irakaslea zen, baina hemen ezin lanbide hori aurkitu: «ez dut paper legalik», dio Abrahamek. «Hemen ez bada paperik ez dago lanik, ez dago deus», gaineratu du Luciak.

#### HERRI HAUNDIATARAKO JOERA

Taulako datuek argi erakusten dute etorkinak zein

herri aukeratzan dituzten bizitzeko: Elizondo, Leitza, Bera, Lesaka, Doneztebe eta Etxalar. **Bortzirietan**, erraterako, bertako populazioaren %10a kanpotik etorritakoa da, gainerako %90, berriz, Euskal Herrian sortutakoa da. Horietako %13,93 Beran bizi da, %9,32 Etxalarren eta %9,3 Lesakan.

**Baztanen** kasuan ere altua da etorkinen kopurua, batez ere, Europar Batasunekoak eta Hego Ameriketatik datozenak: 189. Eta gehienak, Bolibiatik (51) eta Ekuadortik (77) etorritakoak dira. Elizondon bizi dira gehienak.

**Leitzaldean** Baztanen baino baxuagoa da bertze kulturetatik etorritakoen kopurua. Kasu honetan ere, inguruko herri haundienara jo dute, Leitzara. Gehienak Europar Batasunetik eta Hego Ameriketatik etorritakoak dira, batez ere,

### JATORRIAREN ARABERAKO KOPURUAK

	POPULAZIOA	Estatu espainiarra	Estatu frantziarra	Europar Batasuna besteak	Hego Amerika	Europa besteak	Afrika	AEB Kanada	Besteak	DENETARA
ARANO	141	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ARANTZA	655	3	0	0	3	0	0	0	0	6
ARESO	293	0	0	0	2	0	0	0	0	2
BAZTAN	7.827	-	96	119	189	2	31	10	5	452
BEINTZA-LABAIEN	266	1	0	0	-	0	-	-	7	7
BERA	3.740	307	8	48	128	14	11	3	2	521
BERTIZARANA	651	26	0	25	12	2	12	2	2	81
DONAMARIA	412	16	7	0	-	-	-	-	-	24
DONEZTEBE	1.493	68	-	35	75	0	6	4	0	188
ELGORRIAGA	225	12	3	1	-	-	-	-	-	19
ERATSUN	191	2	0	0	0	0	0	0	0	2
ETXALAR	837	16	0	45	11	1	0	5	0	78
EZKURRA	212	2	1	2	0	0	0	0	0	5
GOIZUETA	809	-	0	1	7	0	1	2	0	11
IGANTZI	611	12	2	0	4	0	0	0	0	18
ITUREN	472	10	3	4	6	0	0	0	0	23
LEITZA	2.895	-	1	68	57	1	23	2	0	142
LESAKA	2.687	182	1	23	35	2	4	2	1	250
OITZ	151	0	4	0	-	-	-	-	-	14
SALDIAS	136	2	0	0	0	0	0	0	0	2
SUNBILLA	721	-	12	11	-	-	-	1	-	39
URDAZUBI	359	-	23	0	3	0	0	0	0	26
URROTZ	187	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ZUBIETA	298	3	1	0	0	0	0	0	0	4
ZUGARRAMURDI	223	-	29	0	1	0	3	0	1	34
Denetara	26.492	662	191	382	533	22	91	31	18	1.948

DATU ITURRIAK: Baztango datuak (2007) Gizarte Zerbitzua eta Bidelagunek emanak dira; Malerrekakoak (2005) Mixel Gerekak; Bortzirietakoak (2005) Gizarte Zerbitzua; Bertizaranakoak (2007) Udalak; Leitzaldekoak (2007) Gizarte Zerbitzua.

portugaldik eta ekuadortik. Leitzaren kasuan, aipatzekoa da, Afrikatik etorritako jendearen kopurua ere altua dela, 23 baitira, eskualdeko altuena portzentajetan.

**Malerrekaren** kasuan, Mixel Gerekaren azterketak erakusten du Donezteben biltzen direla atzeritar gehienak, Europar Batasunekoak eta Hego Ameriketakoak batez ere.

**Zugarramurdi** eta **Urdaubidin** ez dago atzeritar aunitzik. Erroldan frantziar gisa agertzen diren gehien-gehienak, Ipar Euskal Herrikoak dira finean.

**Bertizaranan** (Legasa, Narbarte eta Oieregi) etorkinen kopurua erroldatutakoaren %12,44koa da.

## KULTURA ETA HIZKUNTZA DESBERDINAREKIN TOPO

Euren herrialdeko kulturen hagitziferentea denarekin egin dute topo guztiek hemen. Batzuk errazagago ohituko ziren, bertzeei, ordea, gehiago kostatuko zitzaizkien. Eginahal horretan, kulturareniztasunean bizitzeko saiakera aunitz egin dira, Beran, Lesakan eta Elizondon adibidez, euskara ikastaroak, Inki Kausay Berako etorkinen elkarteak ere hor dago, Bidelagun Elkarteak Baztanen... Bai Sergiok eta bai Abrahamek eta Luciak jende «*jatorrarenekin*» egin dutela topo aitortu digute.

Hizkuntzarena aipatzeko bertze kontua da. Gutti batzuk euskara ikasi dute, baina bertze aunitzek gaztelarekin segitzen dute. Hemengo hizkuntza euskara izaki, etorkinek hori jakitea, hein handi batean, gure esku dago.

## ARRAZAKERIA ARAZOA?

Berdin onartzen al dugu Ipar Amerikatik, Marokotik, Madriletik, edo Senegaletik datorkigun jendea? Bertze gogoeta sakon bat egiteko gaia izan liteke galdera hori. Elkarriketatu ditugunek, ordea, arazorik ez dutela izan adierazi digute. Sergioren hitzetan, «*herri hauetan ongi asimilatu da etorkinen fenomeno, azken urteotan golpean izan dena. Lan eskaintza da-*

*go eta hori da gakoa. Lanik baldin bada, gainerakoa etorriko da. Alde horretatik, etorkinen oinarritzko beharrak asebetek daudela iruditzen zait. Hiri haundietan zailago da».* Bertze kontu bat gehitu dio Luciak Sergiok errandakoari: «*baina paperak edukitzea beharrezkoa da, bertzela, ezin digute lanik eman*».

## BARNEKO MIGRAZIOA

Barneko migrazioak ere aipamen berezia merezi du. Garai batean, hemendik Gipuzkoa aldera jende aunitz joan zen ogibidearen bila. Orain bertzelakoa gertatzen ari da, inguruko hiri haundietatik jende aunitz dator gure eskualdera, batez ere, Bortziritara etxebizitza bila, baita Sunbillara ere. Gipuzkoa aldean, etxebizitzaren prezioak izan duen gorakada da jende aunitz honat etorri izanaren arrazoi nagusia.

## SORTERRIRA ITZULTZEA AMETS

Batzuk kontent daude, eta hemen segitzeko asmoa dute, bertze batzuk ordea, sos pixka bat aurreztu eta sorterrira itzuliko dira. Horixe da, hain zuzen, Lucia eta Abrahamen kasua: «*etorkizunean harat bueltatu nahi dugu, horregatik ez ditugu ekarri seme-alabak. Irabazten dugunarekin ezin dugu. Egunero hitzegiten dugu haiekin, emakume batekin daude, eta irabazten dugun diruarekin irakasle partikularrak kontrata ditzakegu, eta irakasleak etxetik pasatzen dira. Han irabazten denarekin ezin da hori egin*». Sergiok, ordea, ez du batere argi Guatemalara itzuliko den ala ez: «*momentuan hemengo proiektuak ditut buruan, medikuntza biologikoa garatzeko. Baina Guatemalarekin lotura mantentzen segitzen dut, eta itzultzeko aukera ez dut baztertua*».

Aunitzetan atzendu egiten zaigu, XIX. mendean euskaldunek eta gure arbaso aunitzek mundu osoko herrialdeetara joan behar izan zutela sos batzuen bila. Modu batean edo bertzeran gu ere etorkin izan garelako, alegia.

## MUGARIK GABE, BORTZIRIETAN

Etorkinak gurean gizarteratzeko helburuarekin, eta herrialde bakoitzaren kultura gurea gehiago hurbiltzeko, *Mugarik gabe* topaketa antolatuta dute Bortziritan Gizarte Zerbitzuak eta Euskara Mankomunitateak. Egitarau zabala prestatu dute eta guztiei hasiera emateko **futbol txapelketa** larunbat honetan. Taldeek ligaxka jokatuko dute Berako kiroldegian, goiz-arratsalde; heldu den larunbatean, irailaren 29an, kanporaketak jokatuko dira, eta final handia urriaren 7an.

Baina izanen da bertzelakorik ere Lesakan, Etxalarren eta Beran. Lesakan, erraterako, igande honetan hasi eta 27a bitarte, *Ni ere pertsona* izeneko **erakusketa** zabalduko da Beti Gazten, 18:00etatik 20:00etara. Egun berean, *Neska politik*, *artasoro alaiak antzerki emanaldia* eskainiko dute Casinon, 19:00etan. Irailaren 25ean, etorkinen eskubideen aldeko **manifestuaren ekitaldia** egingen da Beti Gazten, 19:00etan. Ondotik, **hitzaldia** Mario Zapatak eskainia: *Euskara eta kultura aniztasuna*.

Etxalarrek irailaren 28an hartuko du lekukotza, eta Lesakan irekitako *Ni ere pertsona erakusketa* Kultur Etxera eramanen dute urriaren 2a bitarte (16:30etik 19:30era). **Manifestuaren ekitaldia** Kultur Etxean egingen da 19:00etan. Egun berean, Agustín Untzurruntzaga SOS-Arrazakeriako kideak, *Re-paso a la problemática de la inmigración y la extranjería* **hitzaldia** eskainiko du Kultur Etxean, 19:30ean. Urriaren 1ean Kontu Kontuaren eskutik, **ipuin kontaketa** izanen da marrazkiz lagundua, 17:00etan.

Berara urriaren 3an ailegatuko da *Ni ere pertsona erakusketa*. Hilaren 7a bitarte Kultur Etxean egonen da (18:00-20:00). Urriaren 3an Jon Maiak *Historia de mi familia: De Extremadura a Euskal Herria* **hitzaldia** eskainiko du Kultur Etxean 19:30ean. Bi egun beranduago, urriaren 5ean, leku eta ordu berean, bertze hitzaldi bat Victoria Mendozak eskainia: *Inmigrantes en Euskal Herria*. Topaketari akaberako emateko egun handia urriaren 7a izanen da, 17:00etatik aitzinera ekitaldi andana izanen baita Alizateko frontoian: Xabier Silveira eta Julen Zelaieta **bertsolariak**, Hegoameriketako eta Bortziritako **folklore**a, manifestuaren irakurketa eta sinadura ekitaldia, futbol txapelketa azkarraren **sari banaketa**, **topaketa gastronomikoa** (kanpoko eta bertako gastronomia), **Berako Abesbatza**, eta Batuka eta mojitoa, Barbaro Soloren eskutik.





Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Frankeo Itundua: 34/79  
TIRADA: 6.000

## ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
www.ttipi.net  
info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarrea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

### Baztango Udaleko gobernu taldearen (Na-Bai) zuzenketa

Diario de Navarran agertutako informazioei erantzunez hurrengoa adierazi nahi dugu: lehenik eta behin joan den asteartean publikatutako informazioak zuen izenburua asmo txarrez jarritakoa da, eta jende askorengan zalantza eta kezka sortu du. Ez da egia Baztango Na-Baik bere zinegotziek jasotzen dituzten dirulaguntzak igo eta UPNkoena jaitsi duenik, hortxe daude aktak nahi duenak irakurtzeko. Onartu diren dirulaguntzak ez dira talde politikoen arabera egin, baizik eta Udalean bakoitzak egiten duen lanaren arabera, egun osoko dedikazioa, dedikazio partziala edo gutxieneko dedikazioa (minimoa) (azken honetan UPNko taldeko zinegotziak sartuko lirake).

UPNk erabaki du Osasuneko Zinegotzirik ezizendatzea, ez du Tokiko Gobernu Batzordean eskaini zaien tokia hartu, ondorioz UPNko oredezkariek Udalean egingo dituzten lanak gutxiengoak dira. Hau da 300 euro jasoko

dituzte hilabetero, hilabete behin pleneotara joateagatik eta zenbait komisioetan parte hartzeagatik, Udala kudeatzea berez ia osoki Na-Bairi egokituko zaio. Baztanen 600 euro kobratzen duten askok, nahiago zuten beraiek jasoko dutena hain lan eskasagatik.

Gan den asteleheneko Batzarrean, UPNri erran zitzaion Gobernu Batzorderako oraindik norbait izendatu nahi bazuen, aukera bazela. Na-Baiko Gobernu taldeak UPNri gehiegi eskaini diola uste dugu, bai aurreko urteetan baita oraingo legegintzaldian ere. UPNk agintea duen arras udal guttietan ematen baitzaio hitza oposizioari euren Gobernu Batzordeetan. Egia da aurreko legegintzaldian UPNk bikide izan zituela Gobernu Batzoredan, baina konkretuki esperientzia honen ondorioz, ordezkari bakarra eskaintzearen erabakia hartu da. Aurreko urteetan ekarpen gutti eta eskasak egin baitituzte. Aurreko lau urteetan, UPNko zinegotziak pu-

blikoki egin diren ekitaldi gehienetara agertu dira, are gehiago komunikabideentzako argazkia egin behar bazen. Batzorde eta osoko bilkuretara ordea ez dira hainbertze agertu, kasualitatea ote?

Talde bezala, zera galdetzen diogu gure buruari, Balararen alde lan egiteko hainbertze gogo badute, zergatik uko egiten diete eskaini zaien zinegotzi ordezkari postuari? Pasa den Osoko Bilkuran honakoak entzun genituen "Azaldu gaitzazue zertan datzan zinegotzi horren lana" edo "asmatu egin duzue postu hau, guri emateko". Edozeinek lan egiteko gogo bazu, edozein karteratan lana auserki dago urte aunitzetarako. Ezaguna da ere Gobernu taldeak duen eskumena "kartarak" sortu, kendu edo berrizendatzeko. Gertuen dugun adibidea Nafarroako Gobernuarena izan da legegintzaldi honetan zenbait departamentu birmoldatu baititu.

Akitzeko, Na-Baik ez du "oposizioa ixildu" nahi

edo "bere lana galarazi nahi" hala erran badute ere. Baina ezer gutti egin ahal izanen dute oposizio moduan bailararen alde, erabaki organoetan parte hartzen ez badute, Osoko Bilkuretara bakarrik agertuz. Azpimarratu nahi dugu, ez dagokiela UPNko ordezkarietara errate hartutako erabakiak legezko edo ez-legezko diren, Nafarroako Administrazio Auzitegiak izanen du azken hitza. Baztango UPNko taldeari erran nahi diogu, hitzak utzi eta ekintzekin has daie-la, lanerako duen gogo hori erakus dezala, orain arte bederen ez baitu halakorik erakutsi.

**Nafarroa Bai Baztan**

### Jaibusa antolatututenei eskertza

Lerro hauen bitartez nire eskerrak eman nahi dizkiet Bortzirietan herriko bestetarako Jaibusa zerbitzua antolatzea gogotu zaien pertsoniei. Guraso bezala, lasaigo sentitu naiz gure seme-alabak seguro zue-dela jakinda. Horrez gain, merkeagoa ere bada, gurasook ez baitugu harat-honat ibili behar izan.

**Etxalarko guraso bat**

## Zozketa

TTIPI TXARTETELarekin beti irabazten da!

Zozketan parte hartzeko deitu eta eman zure izena

# 948 63 54 58ra

"badakit" mahai jolasa

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



DIARIO DE NOTICIAS, 2007-09-05

«Aurtengo tomatearen uzta nahiko ongi joan zait, joan den urtekoa baino hobeki, ordukoa nahiko txarra izan baitzen. Halere, hagitz eskasa izan da. Nik bertako hazia ereiten dut, nire aitak eta antzinakoek egin bezala. Otsailaren akaberan edo martxo hasieran ereiten dut, beti ilbeheran, eta horrela egiten segituko dut, nahiz eta urte txarrak egin». «Tomatea lehen bezala jaten segitzen dugu, horizontalean moztua eta xerra ederretan, baratzeko txuleta».

**Victoriano URROZ**  
Narbarteko nekazaria  
D. Noticias 2007-09-05

«Zabortegeiak itxi aitzinetik, epea luzatzea izanen da irtenbiderik sinpleena. Bertzela, Bortzirietatik egunero hiru kamioik joan beharko dute Tuteraraino. Baliteke, horrek zabortegeiak berak baino kutsadura haundiagoa eragitea, ez dakit. Urtean, transferentzia planta egin arte, garraioan 240.000 euro gastatuko genituzke». «Hondakinen Planaren arabera, zonaldeko zaborrak Iruñera eraman beharko ziratekeen, baina orain dena da galdera».

**Paxiku IRISARRI**  
Hondakinen Mankomunitatea  
D. Noticias 2007-09-13

## • 11 GALDERA LABUR •

**Nolatan hurbildu zinen Ramon Latasaren mundura?**

Herri kirolak betidanik izan ditut gustuko, eta herrian holako aizkolari haundi bat izanik, jendeari hori oroitarazi nahian hasi nintzen.

**Duela 2 urte liburua atera zenuen, orain bere izena duen plaza inauratuko duzue. Zergatik?**

Hori eta gehiago merezi du, herritarrek zerbait zor geniola iruditzen zait. Behar adina baloratu ez den aizkolari bat izan da, eta zuen etorri guztia ez demostratzeaz gain, batzuk bide okerretik gidatu zutelakoan nago.

**Gobernuak 23.000 euroko laguntza emanen du eskultura pagatzeko...**

Eta eskertu egiten dugu. Diru beharrea gaude, eta etortzen den guztia hartu egin behar da, gainera goi horietatik gutti etortzen da honat.

**Larunbat honetan, 112 aizkolari ariko dira; holako egun bat antolatzeari ez da erraza izanen...**

Ez ez. Guk nahi dugulako hartu dugu lan hori, egun horretan zerbait berria egiteko ilusioarekin. Lan aunitz egin dugu, eta ea ongi ateratzen den.

**Dena ongi joateko laguntza ere beharrezkoa, ez?**

Hiru lagun ibili gara batzordean eskulturarekin. Baina egun horretarako talde bat sortu da, eta eskertzea da jendearen erantzuna.

**Zenbateko gastua duzue?**

Larunbateko bestarako 20.000 euro

inguru, eta eskultura kontatuta 100.000 bat euro.

**Herrian zer somatzen da?**

Denak egun hori ailegatzeko ilusioarekin gaude, eta ongi ateratzea espero dugu.

**Nola ikusten duzu aizkora munduan Sunbillan?**

Afizio haundiko ingurua da hau, eta zonaldean gazte batzuk ongi ari dira. Lagunduz gero, aitzinera atera daitezkeela uste dut.

**Eta Sunbillatik?**

Bi baditugu, baina aitzinera ateratzeko moduan...

**Ramon Latasa bezalakorik?**

Hori bere garaian izan zen ona. Niretzat orain aizkolari onena Mindedgia da.

**Larunbatean bertze lekuetan ere besta eguna da inguruan: Iturenen, Donezteben... Jendearen erantzun ona espero duzue?**

Jende aunitz espero dugu. 550 lagun etorriko dira bazkaltzera, eta horrez gain ere etorriko da jendea.



**Antton ESPEOSIN**  
*Sunbillako Ulibeltzak elkartekoa*





## LANTEGIAK

# Alcok Enplegua Erregulatzeko Espedientea aurkeztu du

30 lanpostu kendu eta bertzeei %25ean murriztu nahi du enpresak

## ttipi-ttapa

Azken hilabeteotako ezinegonek oraindik segitzen dute. Berako Manufacturas Alcok Enplegu-Erregulazioko Espedientea (ERE) aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Lan Departamentuan. Xehetasunak ezagutzen ez badira ere, bi aukera omen daude, plantillan dauden 90 langileen lan kontratuak desagetea –batzuetan ehun langile izaten dira–, edo 30 lanpostu kendu eta segituko dutenen soldata %25ean murriztea.

Gobernuak jakinarazi duenez, lantegiak aurkeztu duen txostenak 200 bat orri ditu, eta joan den astean aurkeztu zuten. Zuzendaritzak emandako pausoak langileen artean ezinegona sortu du, eta lantegiaren etorkizuna aztertzeke astelehen honetan biltzekoak ziren zuzendaritzarekin langileak. Horregatik, lerro hauek idazterakoan,



ARGAZKIA: J. IRIGOIEN

Alcok 40 urte daramatza Berako Zalain auzoan.

oraindik zehaztu gabe zegoen egitekotan, nola egingen diren ordainketak eta aurretiko erretiroak.

Badirudi Txinatik sortu den kompetentzia dela enpresak espedientea aurkeztu izanaren arrazoia. Alcok 40 urte

daramatza Berako Zalain auzoan, eta lorategi zein hondartzarako altzarigintzan aritzen da. Bi produkzio lerro ditu, batetik, aulkiak eta mahaien tuboak egiteko, eta bertetik, aulki zein eserlekuetan jartzeko kuxinak.

Enpresak argitaratutako datuen arabera, 22 milioi euroko fakturazioa du urtean, eta munduko lau kontinentetako 35 herrialdetara ailegatzen da. Salmenten %70a Espainian saltzen du, eta gainerako %30a atzerrian.

## FLASH

**Lau hilabeteke atzerapenarekin laster hastekoak dira Igantzi-Bera errepide zatiko lanak**

Azkenaldiko zurrumurruek, eta lau hilabeteke atzerapenarekin, egun hauetan hastekoak ziren Igantzi-Etxalar eta Etxalar-Bera errepide zatiak eraberritzeko lanak. Obra hiru enpresen artean osatutako aldi baterako enpresa-elkarte baten esku dago; Ecay-Andueza SL, Indeconsa eta Obrascon Huarte Lain SAK osatzen duten UTEaren esku, alegia. Lanak maiatzean hasiko zirela iragarri zuten Nafarroako Gobernuko Herri Lan Sailak, baina antza, uste baino gehiago luzatu dira.

Lurra mugitzeaz arduratuko den Ecay-Andueza SL enpresak obra bertan behera utzi zuelako zurrumurrua zabaldu zen gure eskualdean azkenaldian. Nafarroako Gobernuko prentsa-bulegoak, argitu dio TTIPI-TTAPARI gertatutakoa. Antza, enpresa elkartean sartzeko bertze bazkide barentzako deialdia zabaldu zen, baina ez zen hautagairik aurkeztu. Hala, prentsa-bulegoaren arabera, hurrengo astean hasiko dira.

Lanak bi zatitan egingen dira, 65 kilometrotik Etxalarko bidegurutzera eta handik Berako saihesbidera. Guztira 7,8 kilometro izanen ditu, eta 43,1 milioiko gastua. Bere garaian errandakoaren arabera, lanek 2009ko martxoaren 30erako bukatuak egon beharko lukete. Hasi lau hilabete beranduago egin badira, ikusi egin behar da noiz amaituko diren.

ASEGURU AHOLKULARITZA

**berawin**

- Asegurua • Lanekin lotutako salgai.
- Itzazpenean inguruko informazioa.
- Eskari handia izateagatik pisuak, etxeak, bontak, eta lotu eremuak behar dira.

Forren Plaza, 6 • BERA • Tfnoa: 948 63 00 01 Faxa: 948 63 00 05  
e-posta: berawin@tema.es

**ttipi**  
**ttapa**

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
[info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

☎ (0034) 948635458

**ZALDUBI**  
SUKALDEKO MOBLEAK

Martin Lizasoain Arlansa

Etxetresnak • Armairuk  
Komunak • Manparak

Tel: 948 580 562 • Faxa: 948 581 859  
Zaldubia Industrialdea • 31730 IRURITA



BERA

# Larunbat honetan eginen da XIII. Dantzari Ttiki Eguna

10:30etik aitzinera herrian ibiliko dira dantzariak

## Amaia eta Ainhoa

Larunbat honetan, hilak 22, ospatuko da Berako XIII. Dantzari Ttiki Eguna, eta hala, goizetik hasita hainbat ekitaldi izanen dira. 10:30ean herri ezberdinetako dantza taldeak Jamoteneara ailegatuiko dira eta auzoetan dantzatzeko taldeetan banatuko dira. 11:00etan kalejira eginen dute dantzariak eta bidean gosaria emanen zaie haurrei. 12:45ean talde guztiak Jamotenean elkartuko dira eta elkarrekin Altxaterat abiatuko dira. Hor Berako gazteek Agurra eskainiko diote talde bakoitzari eta denek elkarrekin Agintariena dantzatuko dute. Ondotik, talde bakoitzak dantza bat eskainiko du.

Bazkaltzeko etxe ezberdinetara joanen dira eta arduradunek Jamotenean eginen dute otordua. Arratsaldean, 17:00etan, berriz ere Jamotenean elkartuko dira eta 17:30ean Kultur Etxean Estixu Mentaberri ipuin kontalaria- ren istorioak aditzeko aukera izanen dute.

## Igandean honetan Mendi Bizikleta Ibilaldia

Igandean eginen da XV. aldiz Berako Mendi Bizikleta Ibilaldia, Gure Txokoa elkarteak antolatuta. Lehia alde batera utzi eta ez da txapelketa izanen, eta parte hartu nahi dutenek distantzia desberdineko ibilbideak izanen dituzte aukeran: 28 kilometrokoa, 16koa, eta 5 kilometrokoa. Parte hartzeko 10 euro, 8 euro eta 5 ordaindu beharko dira, hurrenez hurren. Interesatuak 666 812489 telefonora deitu beharko dute.

## Hasiera batean, lbardingo zabortegea urriaren 31 baino lehen itxita

Nafarroako Hiri Hondakin Solidoen Partzuergoko Batzorde Teknikoa irailaren 12an Etxalarren bildu zen eta bilera horretan urriaren 31rako herri ezbedinetako zabortegeak hasieratean itxi behar zirela erabaki zen. Eta tartean dago lbardingo za-



ARTXIBOA

Joan den urteko Dantzari Ttiki Eguna giro ederrean joan zen.

bortegia ere. Honek duela bi urte itxita egon beharko luke baina bertze aukerarik ez zegoenez irekita segitzen du. Urriaren 31tik aitzinera baimen berezia duten zabortegeetara eraman beharko da zaborra. Baztan-Bidasoako zaborra Zozaian egiten ari diren zabortegeira eramanen da baina oraindik bukatuta ez dagoenez, baliteke Tutetara eramatea. Harat eramateak garraio gastuen handitzea ekarriko du eta gastu hori herritarren gain geldituko litzateke. Bertze aukera lbardingo zabortegea Zozaia ireki arte irekita edukitzea izanen litzateke. Xehetasun gehiago 17. orrialdean.

www.myspace.com/biribil

# biribil

Aretoa - Diskoteka

**Etor zaitetz Oartzuna larunbat gauetako giro berriaz gozatzera**  
**19 € sarrerarekin barra librea larunbatero**

Sounds mixed by MATELEXIM

The Clash, Hertzainak, The Ramones, Jotakie, Coldplay, Pipenak, Rage Against The Machine, Delirium Tremens, Red Hot Chili Peppers, Kortatu, Still Little Fingers, Barricada, The Killers, Banda Basaiti, Daff Punk, Klaxons, LCD Soundsystem, Beastie Boys, Nirvana, Kumbia, The Strokes, B-52's, Bloc Party, The Rapture, !!!, Vitalic, Justice, Arctic Monkeys, Berri Txarrak, Soulwax, Joy Division, Tiga, Mafki, Beck, Negro Gorkiak, Gorkitz, Fermin Muguruza, Franz Ferdinand, Digitalism, The Smiths

Biribil Aretoa - Pagnaldia Poligona 15 - Ergoien Auzoa - Oartzun

**saraha**  
gostegia okidegia

Orde estalera 25 baxo  
34/30 baxo (nabarra)

1049 63 08 99  
www.saraha.net

BAR  
Botxo  
OSTATUA

**ANSONEA**  
Ostatua-Jaletxea

Eguneroko menua eta antzerburutari menu berriak

Terraza estalia eta Ziberkafea

Foran Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

## LESAKA

# Kultur Egunen egitarau zabala abiatu da

Inmigrazioari buruzko erakusketa eta sinadura eginen dira heldu den astean Beti Gazten

Aitor AROTZENA

Euskara Batzordeak, Udalaren eta Euskara eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateen laguntzaz berzte urte batez antolatu dituen Kultur Egunak abiatu dira dagoeneko. Asteazken honetan, irailak 19, Kulki haurrentzako jolasak izanen dira ikastolako patioan 17:00etan. Batzokik antolatuta, egun berean Bizikletaren Eguna eginen da. 18:30ean plazatik abiatuta Biurgaraiako zubiraino joanen dira ttikienak eta Amineko bidegurutzeraino koxkorrak.

Ortzegunean, hilak 20, *Zermundu berriezagutu eta gozatzeko aukera ematen du euskara ikasteak?* solasaldia eskainiko du Joxerra Gartziaik pleno aretoan 17:30ean.

Larunbatean, bertsoafaria eginen da Lindurrenbordan, 21:00etan. Igandean, berriz, *Neska politikak, artasoro alaiak* antzezlana ikusgai izanen da Kasinoan 19:30ean.

Datorren astean, irailaren 23tik 27ra, *Ni ere pertsona* inmigrazioari buruzko erakusketa izanen da Beti Gazten, 18:00etatik 20:00etara. Asteartean, irailaren 25ean, inmigrazioari buruzko adierazpena sinatuko dute herriko gilarak 19, Kulki haurrentzako eragileek, Beti Gazten 19:00etan. Egun eta leku berean, Mario Zapatak *Euskararen normalizazioa eta kultur aniztasuna* solasaldia eskainiko du.

## Pistak moldatzeari lehentasuna ematea eskatu du PNVk

Nafarroako Gobernuko Nekazaritza eta Abelzaintza Departamentuari urte hasieran eskatutako dirulaguntza osoa eskuratu dela eta, pistak moldatzeari lehentasuna ematea eskatu dio PNVk Udalari. Zehazki, Iriburuta, Ontsalenborda, Zarrol-txiki eta Tellegi-San Anton pistak zolaberritzeko 180.000 euroko dirulaguntza hartu da. Lanen



ARGAZKIAK: AITOR A.

## 'Erretiradi' nagusitu zen Lesakako Gaztik lehen aldiz antolatutako futbito txapelketan

Lesakako Gaztik lehen aldiz antolatu dute aurten futbito txapelketa. Zortzi taldeen artean, Erretiradi izan zen nagusi (goitiko argazkian), finalean Ziharka A taldeari 11-7 irabazita. Txapelketako bi talde indartsuenek final bizia eskaini zuten. Txapelketako golegile nagusiaren saria ere Erretiradiko Beñat Maiak eskuratu zuen.


aurrekontu osoa 480.000 eurokoa da. PNVko udal taldeak inbertsio honi lehentasuna ematea proposatu dio Mendi Batzordeari.

## Erretiratuak Errioxara

San Fermin elkarteak Errioxara ateraldia antolatu du urriaren 2ra-

ko. 7:30ean plazatik ateri, bidean gosaldia eta Bianan Marbu galleta fabrika bisitatuko dute. Handik Harora joanen dira, herria eta azoka bisitatzera, Labastida ere bisitatuko dute eta bertan bazkalduko dute; odolki erreka, piperra baratzuriek, patatak errioxar erara, bildots

errea eta flana izozkia- rekin. Gasteiz bisitatu zu bueltatuko dira. Txartelak irailaren 28a baino lehen eskuratu behar dira 25 eurotan. Bertalde, jubilatuen gimnasia ikasturtea abiatuko du urriaren 9an. Maiatza bertarte, astearte eta ortzegunero bilduko dira, 16:00etatik 17:00etara.





## GIZARTEA

### Ameriketara artzain ibilitakoak omentzeko elgarretaratzeak Alduden eta Gernikan

Bazkarietara joateko autobusak paratuko dituzte Baztan, Sunbilla eta Lesakatik

#### ttipi-ttapa

Ameriketara artzain joandakoak gogoan, Artzain Mundua elkarteak bi elgarretaratze antolatuko ditu heldu den irailaren 29rako eta urriaren 1erako. Aitzineko aldian, Lesakan eta Sunbillan egin bezala, hurrengoak Alduden (Nafarroa Beherea) eta Gernikan (Bizkaia) izanen dira, hurrenez hurren.

Jardunaldiak Elizondan egindako aurkezpenean izan ziren Miren Elgarresta eta Jose M<sup>a</sup> Zeberio, elkartearen izenean, Laura lan-tzi eta Josephine Etcheverry artzainen alabak, Kepa Mallea (Bizkaiko artzainen datuak bildu dituenak) eta Sunbillako Fermin Zelaieta eta Jesus M<sup>a</sup> Jorajuria artzainak. Artzain ibili-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

#### Baztanen egindako aurkezpenean parte hartu zutenak.

takoez gain, interesatua dagoen edonork izanendu bi elgarretaratze hauetan parte hartzeko aukera, eta egun horietan eginen diren bazkarietara joan nahi izanez gero, irailaren 20a baino lehen eman behar da izena, Baztango Udaletxean (948

580006), Lesakako Udaletxean 10:00etatik 18:00etara (Laura lan-tzi 686 759341) eta Sunbillan Fermin Zelaieta (609 521747) edo Jose M<sup>a</sup> Arretxeari (679 794966) deituz. Batez ere, 50 eta 60. hamarkadetan joandako artzainak omenduko dira.

#### Datu basea

Hilabetetako lanarekin, artzainen datu base zabala osatu da. Dagoeneko 887 artzain identifikatu dituzte, horietatik 10 emakumezkoak. Jaso dituztenen %51 bizkaitarra da, %29 nafarra eta %17 iparraldekoa.



eta zu...

**EUSKALDUN OSOA  
EDO  
ERDI EUSKALDUNA  
zara?**

**IZAN ZAITEZ EUSKALDUN OSOA!!**

**Ikasi irakurtzen eta idazten  
ZEURE HIZKUNTZAN**

**MATRIKULATU!!**

Antolatzaileak: Nafarroako Mendaldeko euskara zerbitzuak



Euskaraz mintzatu

Euskaraz irakurri

Euskaraz idatzi

Baztan  
AEK - Suñik euskaltegia  
948 452 471

Maierrika  
IKA  
948 451 555

Leitza  
Leitzaaldeko IKA  
948 610 776

Larraun  
AEK - Larraungo  
Udaleko  
948 604 704  
IKA  
948 610 776

Utzama  
AEK  
459 841 687 /  
948 305 134  
IKA  
948 610 776

Bortziriak  
IKA  
Borran: Ricardo Baroja eskola  
(asteleke eta ostegunetan, 18.00-20.00)  
948 625 019  
Lesaban: Matxinbeltzenea  
948 637 796

## ETXALAR

# 8 ikasle berrirekin hasi dute ikasturtea Landagain Eskolan

“Etxalarko etxeak” liburuxka idatzi du Pello Apezetxea apezak

**Joseba eta Nerea**

Batzuk gogoz, bertzeak perezarekin, eta bat edo bertze negarrez. 52 ikaslek hasi zuten ikasturte berria joan den irailaren 7an. Udako oporren ondotik, irakasleak agurtu eta ikaskideak berriz ikusi zituzten, heldu den ekaineararte luzatuko den urterari hasiera emanez. Hiru urteko sei haur hasi dira: Nicolás Garcia Aranzadi, Jon Gastearena Irisarri, Manex Leza Iturbide, Asier Martin Baiona, Naiara Otxoteko Perugorria eta Joseba Telletxea Iparragirre. Bortz urtekoekin Enia Susperregi Lorenzana sartu zen eta lehenbiziko mailan Anaia Roth Arrospide.

Guztira 52 ikasle izanen dira aurten. Joxe Mari Remiro beratarrak segituko du zuzendari eta irakasleen artean aldaketa gutti izanen dira; Junkal Altzuguren

segituko du lehenbiziko zikloan, Joxe Mari Remirok bigarreanean, Aintzane Ollokiegik hirugarreanean, eta ingeleza ematen Izaskun Urbietan. Aldaketak eskolako ttikienekin izanen dira. Aurten lehenbiziko, gela bat gehiago izanen dute Landagainen; bi gelatan banaturiko dituzte ttikienak, 3 eta 4 urtekoak batean, eta 5 urtekoak bertzean. Idoia Bereau igantziarra arituko da 5 urtekoen gelan eta Ainhoa Larretxea hondarribiarra (goizez) eta Idoia Iturria etxalartarra (arratsaldez) 3-4 urtekoekin.

## Pello Apezetxearen liburuxka berria

Bazekien norbaitek Mediku Kontsultategiaren ondoan *Zamargillea* izeneko etxe bat zegoela XIX. mendean? Eta Kultur Etxe ondoko aparkalekuan *Perubel-*



*tzenea* izeneko bertze bat? Gaur egun apeza bizi zen etxea, *Erretorena* izenez ezagutzen duguna, lehen *Tornariarena* etxea zen, XVII. mendean parrokiak erosi zuen arte. Hori ezagutzen zenuten? Gisa honetako datu kurioso eta deigarriak eskaintzen ditu Pello Apezetxeak Etxalarko etxeen inguruko bere azken argitalpenean.

1600. urtetik gaur arte, karrikan eta baserriauzoetan egon diren eta dauden etxeen inguruko informazio zabal eta interesgarria eman du argitara, hainbat mapa eta irudirekin.

XVIII. eta XIX. mendeetan Etxalarko baserriek izan zuten ugartzea eta gaur egun noia husten ari diren aztertu du. Auzoz auzo zenbat jende bizi den, asteburutan zenbat joa-



ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

**Eskolako ikasle eta irakasleak ikasturte berriko lehenbiziko egunean. Azpiko argazkian, berriz, eskolako ttikienak.**

ten den eta zenbat etxe huts dauden biltzen dituzte liburuak. Azken urteetan eraiki diren etxe berri guztiak ikus daitezke, izen eta guzti. Etxeak noizkoak diren agertzen du —karrakako etxe aunitzek 400 urte dituzte— euren estiloa, erretako etxeak —Maritona, Ezkutua, eta Behokoetxea adibidez, XIX. mendean erreta-

koak dira—, baserrien okupazioa auzoka —Orizkin erraterako, 43 etxetatik 18tan bakarrik bizi da jende finkoa—, eta abar. Herriko Etxeko artxiboan, Parrokiakoan eta bertze hainbat lekutan bildutako informazio mardula moduarin eta erakargarrian bildu du Apezetxeak. Etxalarko etxeen historiaren zati handi bat.

**BIZIKLETEN**  
SALMENTA ETA KONPONKETA

**WATER-BIKE**

Kantillonberri, 1 • BERA  
948 63 12 18

**EDARIAK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

**ZJ**

**Zalain**  
jaketxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin

Zalain auzoa z/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA



## ARANTZA

# Mendiko lanak egin dira herriko auzo guztietan

Otsarran Iberbanda enpresak paratutako antenari buruzko informazioa eman du Udalak

### Nerea ALTZURI

Ikasturte berriko lehenbiziko alean aipatu ez bagenuen ere, joan den hilabetean udal informazioa banatu zen etxe guztietara. Hiru orriko txostenean, hemen lehenik ere emaniko web orriaren ([www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)) eta udal hautetskunde nahiz Udalaren osaketaren berriak eman dira. Bertze puntu batzuk ere garatu dira: auzolanak, Internet, mendiko lanak eta pisten likidazioa.

### AUZOLALANAK

Herrian betitiki egin dira auzolanak, eta ohitura eta betebeharrak horrekin segitu nahi du Udalak. Auzolanen nondik norakoak ere azaltzen dira txostenean, arautuak izanik eta udal ordenantzak erraten duena xehetasun osoz esplikatu.

### INTERNET ZERBITZUA

Aitzineko legegaldian Iberbanda izeneko enpresak Otsarran ante-

na paratu zuen. Orain arte herritarrek zerbitzu horren gaineko informazioak jaso ezean, orain enpresako arduradunekin solastu ondotik, zerbitzuaren nondik norakoak jakinarazi dituzte: antena horren betebeharrak Internet zerbitzua hobetzea da eta egitasmoaren helburua banda zabala deritzon zerbitzuari estaldura (kobertura) ematea izan da (Telefonia eta Internet zerbitzuei).

Herriko kaxkoa eta auzoak hartuz, gaur egun herrian %70eko kobertura dago; Azkilarrean, Bordalarrean eta Eguzkialdean %100-ekoa da; Aientsan, berriz, momentuz ez omen dago estaldurarik.


Zerbitzu hau gure etxeetan erabili ahal izateko Iberbandan alta eman behar da. Oraingoz etxeetako instalazioa debalde dela adierazi dute enpresakoek, hori bai, zerbitzua erabiltzeak dakarren kostua ordaindu behar da.

Edozein duda dela, Iberbandara deitu daiteke, 1632 telefonora.

### MENDIKO LANAK

Nafarroako Gobernuak hainbat mendiko lan egiteko dirulaguntza eman du. Uztailean egindako plenoan aho batez erabaki zuen Udalak Basarte enpresak buruturiko proiektua Berdabio Basogintza enpresari ematea, hainbat enpresari gonbidapena egin ondotik.

Lan hauek egin dira: plantazioen garbiketa desbrozadoraz Bida-txutan, Txertadin, Zapatinbordan, Apittan, Ametxokon eta Axtalkon; bideen hobetzea Unanun eta Azkin; larraren desbrozea Azkin eta auzo guztietako pistak nagusietan desbroze lanak. Abuztuaren 24an bukatu ziren obrak, eta guztira 17.304 euroko gastua egin du Berdabiok. Gobernuak gastuaren %60ko laguntza eman du. Aipatu, dagoeneko mendi batzordea hurrengo urterako mendiko lanak egiteko lanean hasia dela.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

## Asier Apezetxea bikain Igantzin eta Lizarran

Gogor segitzen du Asier Apezetxeak mendi bizikletan, eta emaitza onak lortuz gainera. Joan den irailaren 9an jokatu zen Igantziko XVII. Mendi Bizikleta Ibilaldian izan zen, eta parte hartu zuten 130 bat txirrindulariren artean lehenbizikoa izan zen helmugaratzen. Aitzineko egunean, berriz, irailaren 8an, bertze garaipen bat eskuratu zuen Lizarran Montejurako igoeran. Hurrengo hitzordua, igande honetan du Gorlizan (Bizkaia) jokatu den txapelketan. Zorte on!!

formazio eskasia, suposatutako gastoa eta akordio eza aipatu ziren. Obra egina dagoenez, ordaindu beharra dago. Udalak gastu totalaren %10 bere gain hartuko du (ez %4a, orain arte bezala). Akordioak lortu ahala herritarroi informazioa ematen digula adierazi du.

### PISTETAN MOLDAKETAK

Aitzineko legegaldian pistetan moldaketa lan batzuk egin ziren. Herritar batzuen desadostasuna ikusirik bilera batzuk egin, eta obrak egiterakoan egondako in-

## ARTEKARI TALDEA

**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

<ul style="list-style-type: none"> <li>☛ Langile autonomoak</li> <li>☛ Nekazariak eta mendi langileak</li> <li>☛ Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>☛ Lan-Kontratutarako laguntzak</li> <li>☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>☛ Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>☛ Kontabilitateak</li> <li>☛ IVA eta IRPF</li> <li>☛ Errenta aitortpenak</li> <li>☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak</li> <li>☛ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak</li> </ul>
--	---

artekari@artekari.com

**LESACA:** Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
**BURLATA:** Lo Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

Tel: 948 634 179

ARANTZA

ALBERGIA · JATETXEA

Alberto RETEGI

abokatu

☎ 948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA





# NORBERA ONGI IZATEKO LANTEGIA

Lana, bikotea, seme-alabak, gurasoak,... eta ni?

Norberaren gaitasun eta trebeziak  
Ezetz esatea errudun sentitu gabe  
Nola egin eta jaso kritikak  
Nola konpondu gatazkak  
Emozioak, estresa eta autoestima



**Norentzat:** Bortzirietako emakumeentzat  
**Noiz:** Urriaren 2tik azaroaren 8ra arte  
**Non:** Lesakako Emakumeen Harrera Zerbitzua-  
Erabillanitzeko gela (Osasun Zentroaren aurrean);  
Antoiu 27-2  
**Ordutegia:** Astearte eta ostegunetan,  
16:30etatik 18:30ak arte  
**Kuota:** 20€  
**Izena ematea:** Irailaren 17tik-28ra,  
telefono honetara: 948635036/662251848  
bortziri\_berdintasuna@yahoo.es  
www.andretajabe.com  
Plaza mugatuak



## DONEZTEBE

# Adin eta gustu guztietako jendeari begira, Doneztebeko besta ttikiak asteburuan

Igande arratsaldean herritarren arteko erremonte partidak jokatuko dira

## ttipi-ttapa

Doneztebeko Udalak eta Burrenba Kultur Taldeak antolatuta, asteburu honetan egingen dira besta ttikiak. Horren harira, hiru eguneko egitarau zabala prestatu dute, «*adin eta gustu guztietako jendeari begira egina*». Ortziral honetan, hilak 21, 20:00etan botako duten txupinazoarekin emanen diote hasiera besta ttikiei. Ondotik, zopak izanen dira herriko jate-txeetan. Gauerdian, 00:30etik 04:00ak bitarte dantzaldia izanen da Jalisko Band taldearekin.

Larunbat goizean, 09:00etatik aitzinera Beazana txaranga karrizak karrizka ibiliko da. 11:00etan haurrentzako jokoak izanen dira, eta helduagoentzako paella lehiaketa. Gero, 14:00etan, herri bazkaria. Arratsaldean, aitzinako urteetan bezala, mus eta partxis txapelketak jokatuko dira. Giroa alaitzeaz Trikidantz

arduratuko da, 20:30etik 22:00etara eta 23:30etik 04:00etara.

Igande goizean meza izanen da San Migel ermitan 11:00etan. Bide batez, herriko apaitza den Jesus Goldarazi omenaldia eskainiko zaio. Mezondoan aperitiboa izanen da. Besta ttikiei akabera emateko, herritarren arteko erremonte partidak jokatuko dira 17:00etatik aitzinera.

## Lau talde ari dira infantil mailako laxoa txapelketa

Maila nagusiko txapelketa bukatu ondotik, orain gaztetxoagoen txanda da. Dagoeneko hasia da infantil mailako laxoa txapelketa eta laxoak betidanik garrantzi eta afizio berezia izan duen bi herritako lau talde ari dira txapelketan parte hartzen: Oitz, Doneztebe A, B eta C taldeak. Partida guztiak liogaxka moduan jokatuko

ko dira, denak denek aurka arituko dira, eta itzuliko bi partida jokatuko beharko dituzte. Sailkatutako lehendabiziko bi taldeek finala jokatuko dute urriaren 20an.

Hauek dira, txapelketan ari diren jokalariek: Oitz taldean Lan-

der Mindegia, Laurendi Zelaieta, Jon Jaen eta Andoni Saldias ari dira; Doneztebe A taldean Josetxo Ezkurra, Jon Andiaarena, Mikel Grazeña eta Emilio Zabala; Doneztebe B taldean Xabi Ibarrola, Unai Arroz, Andoni San Mar-

tin eta Borja Arregi; Doneztebe C taldean Aurelio Bertiz, Joseba Grazeña, Unai Sapuppo eta Josu Inda.

Denetara sei jardunaldi jokatuko dira, eta final handia, aipatu bezala, urriaren 20a jokatuko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Errekaren Udako Kirol Eskola arrakastatsua

Azken urteotan egin bezalaxe, Erreka Kirol Elkarteak antolatuta Udako Kirol Eskola egin da Donezteben. Aurten 30 bat haurrek eman zuten izena eta Maite Urreaga begirale zutela, kirol desberdinak ezagutu eta praktikatzeko aukera izan zuten: futbola, saskibaloia, boleibola, beisbola... Argazkian patina ikastaroan ageri dira.

**arkitektoak**

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETREBIDETZA PROIEKTUAK  
URRUGAZIO PROIEKTUAK  
ETZA BERRITZAK  
NABARRAK  
KONSULTAK  
INFORMAZIOA: 33

SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDU TLF 948 581 931

**ITURRALDE**  
pvc & aluminio

667 264 025 • 948 581 967  
maxene@terra.es



## AZPIEGITURAK

# Bortziriak, Malerreka eta Baztan sartu dira Nafarroako Hondakin Solidoen Partzuergoan

Urriaren 31 baino lehen zabortegei guztiak itxita nahi dituzte, Gongorakoa izan ezik

### ttipi-ttapa

Zaborraren kontuari irtenbidea eman nahian, Nafarroako Hondakin Solidoen Partzuergoko batzorde teknikoa bildu zen irailaren 12an Etxalarren. Partzuergoa, zaborrak modu globalean kudeatzeko sortu zen martxoan, Nafarroako Gobernuaren eta Nilsa enpresa publikoaren eskutik. Bere garain, hainbat mankomunitate sartu ziren, eta orain, eskualdeko bertze hiru sartu dira: Bortziriak, Baztan eta Malerreka.

Etxalarko bileran etorkizunean Nafarroan eginen diren transferentzia plantak non kokatuko diren erabaki zen. Hain zuzen, Baztan-Bidasoari dagokion Zozaian eraikiko da. Planta horietan zaborra

banatu eta trinkotu eginen da, eta ondotik, Tuterako biometanizazio plantara eraman. Planta berri hauek 2009rako martxan egotea aurreikusituta dute.

Oraingo zabortegeiek, berriz, urriaren 31 baino lehen itxiak egon beharko lukete, Gongorakoak izan ezik, honek baimen berezia izanen baitu. Zabortegeiak itxi eta plantak martxan paratu artean, zaborraren zer eginen den, hori dago orain aztergai. Bi aukera daude: Tuterara eramatea —nahiz eta ez trinkotua izan— edo Europari epea luzatzeko eskatzea. Hemendik Tuterara 200 kilometroko distantzia dago, eta bidaia egunero egiteak trafikoa eta gas-tua aunitz haziko luke.



G. URDANPILLETA

Nafarroa osoko Udal eta Mankomunitateetako ordezkariak bildu ziren Etxalarren irailaren 12an.

	ZABOR TONAK URTEAN	ZABORRAK KILOTAN (Eguneko/pertsonako)	ORAINGO ZABORTEGIA
<b>Bortziriak</b>	5.000	1,65	Bera (Ibardin)
<b>Goizueta</b>	177	0,51	Goizueta
<b>Leitza</b>	2.000	1,05	Gongora
<b>Malerreka</b>	2.000	1,03	Gongora
<b>Baztan</b>	3.000	1,05	Gongora

## KSUB - ESCUELA y CENTRO DE BUCEO



**Ksub**  
urpeko zentrua

**HURRENGO URPEKARITZA  
IKASTAROA ELIZONDON**

irailaren 25etik urriaren 7ra

☎ 943 14 01 85  
Inaxio 627 93 03 30

**GETARIAKO PORTUA**  
www.ksub.net urte guztian irekita, asteartetik igandera



IKASTAROAK



IRTEERAK



MATERIALA SALMENTA

## URROTZ

# San Migel bestak irailaren 28tik urriaren 2ra

Igandean aizkora apostua jokatuko da: Castro-Alejo Mindegia eta Erasun-Angel Erasó

## Ortzirala 28

**20:00etan** altxaferoa Herriko Etxetik eta ezkilak jotzea. **Ondotik** zopak eta txuri-beltzak herriko ostatuan. **Gauetz** TRIKIDANTZ.

## Larunbata 29 San Migel Eguna

**11:30ean** Meza Nagusia. **12:30ean** luntxa eta herri kirolak (herri-tarrak baseritarren aurka). **Ondoren** musika emanaldia Agorreta musika eskolako soinu-larien eskutik. **17:00etan** San Migel Torneoko pilota partidaren finala. **Arratsaldez eta gauetz** JALISKO BAND.

## Igandea 30 Haurren Eguna

**11:00etatik aurrera** haur parkea (puzgarriak). **13:00etan** aizkora apostua: Raul Castro eta Alejo Mindegia, Ander Erasun eta Angel Erasoren aurka. **16:30ean** haur parkea (puzgarriak). **18:00etan**

TRIKIPAND trikitixa taldearen emanaldia. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia AGERRALDE-REKIN.

## Astehena 1

**11:00etan** mus txapelketa. **14:00etan** herri bazkaria eta bertso saioa plazan: Angel Mari Peñagarikano eta Jexux Mari Irazu. **Ondoren** sokatira, txingan eta herri kirolak ezkonduen eta ezkongabeen artean. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANGELEKIN.

## Astearte 2

**11:00etan** mus txapelketaren finalak. **12:00etan** haurjokoak. **14:00etan** herriko gazteen bazkaria ostatuan. **16:30ean** Gorritiren animaliak. **Ondoren** haurrentzako berendua. **20:00etan** Urrozko IV. patata eta postreen lehiaketa. **Arratsaldez eta 00:00ak arte** dantzaldia AGERRALDE-REKIN.



ARTXIBOA

Urtero bezala, ez da aizkora aposturik ez herri bazkaririk faltako.

## Mundua zure esku jartzen dugu



Carles II Etorri - 22-12 BUREA  
948 204 248 - carles2@marfilviajes.com  
Pascual Caballero - 40 BUREA  
948 200 200 - pascual@marfilviajes.com  
Fernan Plaza - 12 BUREA  
948 205 245 - fernan@marfilviajes.com  
LA ANDREA Inebalaitza zentrua CORDOVILLA  
948 200 270 - laandrea@marfilviajes.com  
Candelarias Kalea - 3 TUTERA  
948 843 410 - tutera@marfilviajes.com  
Alfonso 30 H LESAA  
948 857 870 - alfonso@marfilviajes.com





IRUÑA • BARAÑAIN • CORDOVILLA • TUTERA • LESAKA

# ARGENTINA OSOA

Azaroaren 21etik abenduaren 7ra

Informazioa 948 206 246



Azaroak 21. Nafarroa-Madril-Buenos Aires. Iruña-Madril autobusez. Hegaldia Barajas-Argentina.

Azaroak 22. Buenos Aires. (ME). Bisita panoramikoa San Telmo auzoa, La Boca, Plaza de Mayo, Casa Rosada, Gobernuko egoitza, Cabildo, Katedrala, Mayo etorbidea, Kongresuko Plaza, etab.

Azaroak 23. Buenos Aires-Trelew (ME). Trelewra hegaldia. Arratsalde librea.

Azaroak 24. Valdes Penintsula (ME). Valdes Penintsulara egun osoko txangoa.

Fauna itsastarraren erreserba eta hegaztien behaketa eta interpretzio zentrorra eta Caleta Valdesen itsas elefante eta itsas lehoi kolonietara bisita. Puerto Piramiden baleengana hurbiltzeko ontziratzea.

Azaroak 25. Punta Tombo-Ushuaia (ME). Punta Tombora bisita. Ushuaiara hegaldia.

Azaroak 26. Ushuaia (ME). Beagle Kanaletik txango gidatua: Los Lobos irla, Los Pájaros Irla, Les Eclaireurs Faroa, Tierra del Fuego Parke Nazionala. Lago Roca eta Bahía Lapataia.

Azaroak 27. Ushuaia-El Calafate (ME). Hiria eta Fin del Mundo Museora bisita. Hegaldia El Calafatera.

Azaroak 28. Glaziareen Parke Nazionala (ME). Upsalla eta Onelli glaziareak itsasontzian.

Azaroak 29. Perito Moreno Glaziarea-Bariloche (ME). Bisita gidatua. Hegaldia Barilochera.

Azaroak 30. Bariloche (ME). Circuito Grande txangoa: Encantado Bailara, Trafal Laku, Nahuel Huapi lakuaren iparraldeko kosta eta La Angostura hiria.

Abenduak 1. Bariloche-Buenos Aires (ME). Circuito Chico txangoa: Patagonia erdialdeko Bariloche hiria, Nahuel Huapi laku, Liao Liao Penintsula eta Barilochera itzulera. Buenos Airesera hegaldia.

Abenduak 2. Buenos Aires (ME). San Telmo auzoko eta Placita Dorregoko denda eta merkatuetara bisita.

Abenduak 3. Buenos Aires (ME). Egun librea. Tango ikuskizuna.

Abenduak 4. Buenos Aires-Iguazu (ME). Brasil aldeko Iguazu ur-jauziak ikusteko bisita gidatua.

Abenduak 5. Iguazu ur-jauziak. (ME) bisita gidatua, Garganta del Diablo barne.

Abenduak 6. Iguazu-Buenos Aires (ME). Buenos Aires-Ezeiza Nazioarteko aireportua-Madril hegaldiak.

Abenduak 7. Madril. Barajas-Iruña autobusez. BIDAIAREN BUKAERA.

**EZ GALDU AUKERA HAU**  
**PREZIOA: 3.595€**

**Prezioak barne hartzen ditu:** Hegaldia guztiak, joan-etorriak, 4 eta 5 izarretako hoteletan 15 gau logela bikotzean, mantenu-erdia, bisitak eta txangoak, gidariak, bidaiako asistentzia-asegurua.

**Prezioan sartuta ez dagoena:** Eskupekoak, Aireportu tasak, Banakako gela (947€ko gehigarria), Iruña-Barajas autobusa.



## GOIZUETA

# Etxebizitzarik gabe gelditu direnen nahia betetzeko aukerak aztertzen ari da Udala

Besteak beste, herriarenak diren eraikinak babes ofizialeko pisu bihurtu litezke

## Esteban AROTZENA

Zabala-Goikoetxeak eraiki beharreko babes ofizialeko 12 etxebizitzaren jabeen izenak azken bizpahiru asteetan ahoz aho dabilzan bitartean, oraingoan pisurik gabe gelditu diren 21 herritarren nahia bete ahal izateko aukerak aztertzen ari da Udala, Herriko Etxetik jakin berri dugunez.

Herriak bereak dituen eraikinak (garai bateko maisu-maistren etxebizitzak, medikuaren etxea...) eta beste hainbat erakunderekin Udalak agintea konpartitzen duen etxea (Ospitale zaharra) bihurtu litezke babes ofizialeko pisu. Honetaz gain, onartzearen arau subsidiario berrien arabera erakigarririk diren hainbat lurren jabeekin ere biltezeko asmoa du udalbatzak. Azken helburua Goizuetan bizi nahi duten herritar guztiei etxebizitza ziurtatzea omen da, EAE-ANV eta El-

kartasuna taldeen hauteskunde programak zioen bezala.

## Alkatea herritarren zain

Iradozikunak, kekek, alabantzak edo eskaera pertsonalak alkateari egin nahi dizkieten herritarrek aukera ederra eta erosoza izanen dute hemendik aurrera, astearte arratsaldero 16:30etik 20:00etara bere bulegoan egonen baita Miel Joxe Lekuona, jendea noiz azaldu zain. Hitzordua hartzea gomendioa omen da, bisitan doanaren onerako.

Alkatetzako berriekin segituz, esan, azken asteetan Herriko Etxetik igarotzen ari direla bertako erakunde guztietako ordezkariak, ondorengo hilabeteetarako dituzten asmo eta premien berri emanez alkateari. Hauetaz gain, eta pinuaren egoera larria dela eta, gure basoetan lanean ari diren kontratistekin bildu da



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Zubimuxu da garai bateko maisu-maistren etxeetako bat. Irtenbidea eman nahi dio Udalak.

Udala banan bana. Nafarroako Gobernu

Mendietako zuzendariarekin ere elkartu be-

riak dira Iruñean herriko ordezkari politikoak.

## Suhiltzaileentzat kamioia

Berri-berri bezala dagoen zisterna-kamioi eder bat jasoko du herriko suhiltzaile bolondresen taldeak egun batetik bestera. 55.680 euro balio ditu kamioiak eta Udalak aurreratu du dirua. Nafarroako Gobernuak erosketa hau %100ean subentzionatuko duenaren hitza eman du Gobernuak.

## ARANO

# Antsatarrak Euskal Herriko txapeldun segan

## ttipi-ttapa

Ixabel eta Ainhoa Antsa izeba-ilobak ederki ari dira segan. Berriki Euskal Herriko nazioarteko erako txapelketan parte hartu zuten taldeka bertze birekin, Ordizian, baita irabazi ere. Elgarrekin izeneko taldean aurkeztu ziren, eta nesketan bi talde aurkeztu baziren ere ez zuten hutsik egin. Zorionak eta segi horretan!

**Ark<sub>b</sub>** arkitektura bulegoa

Erakuntza  
Hirigintza  
Lidat-ahokulartza

Celia Lana Ranz  
Huarte Gotzal 7 - 31880 Leizaola  
645008478 tel

**Pitti**  
eskabaziloak

Tel: 616 513 491

Mendiak eta etxea, 34 ZUBIETA

**ttipi**  
**ttapa**

www.ttipi.net  
info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

**ZUBIONDO**  
Jatetxea

agardotegia jatetxea

Alasta karrika  
Tfn. 948 649 472  
BERA NAFARROA



# Igantzi bestak 07

irailaren 28tik urriaren 1era



## Iarunbata 22

- 11:00 Nesken pala txapelketa.
- 16:00 Plater tiroketa eta berendua.
- 20:00 Herriko dantzarien emanaldia
- 20:00 Bertso afaria, Julen Zelaieta eta Erika Lagoma bertsolariekin.



## igandea 23

- 10:00 Argisoinuak txistulariekin.
- 11:00 Igantzi IV. Gazta lehiaketa.
- 11:30 Herriko haurren herri-kirol erakustaldia.
- 16:30 XXVIII. artzain zakur lehiaketa.
- 19:30 Sagardo besta. Lehiaketako gaztaren degustazioa.



**CONSTRUCCIONES MECANICAS**  
**BERRIZAUN S.L.**

- Makineria erakuntza
- Mouldaketa eta despieza
- Manteneredu mekanikoa
- Toroi, fresadurak, erakiltzadurak

Igantzi Bestak • Tel.: 948 637 572 • Fax: 948 637 508

**SEGUROS LAGUN ARO**  
**ASEGURUAK**  
Oskar Txoperena

Tel-Fax: 948 637 236 • Mug.: 610 507 579  
Baratzondo, 1 • IGANTZI

Klase gutxiesten asegurua! Herriko bestak!

**TALOTXA**  
IGANTZI ERAIKUNTZAK.

ongi pasa bestak!

Piedadeko auzoa, 6 • 31790 Igantzi (Nafarroa)  
608 20 21 26 / 618 90 18

**Carlos Txoperena**  
mendi garbiketak eta landaketak

ongi pasa Samingotzale!

Tel: 948 637 477  
637 466 124  
LESAKA

**ALLINEA**  
ostakua jatetxea

ongi pasa bestak!

Karrika Nagusia • IGANTZI • 948 637 497

**bortzIRUDI**  
BORTZIRIETAKO - FOTOKOPISTEGIA - INPRIMATEGIA

KARTELAK - KAMISETAK - BIDERAK - TOKERORAK  
FOTOGRAFIA DIGITALAK, KALORITAN, TIGRI BELTZEAN - PLANGAK  
ENKADREKATZIOAK - PLASTIKATZIOAK - PEPLUETAGIA - BULGOI MATERIALA  
BESIENU GRAFIKOA - IDOGOTPOAK - ERROTULDAK - INPRENTA

PASA ALAI ETA BESTA IN,  
**SANMIGELAK URTEAN BEHIN**

**GOA IGANTZIKO BESTAK !!!**

Ezferara 26 behea • BERA • Tel-Fax.: 948 63 15 21

**ATM SA.**  
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METAICOS S.A.

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaia
- Mantenu rodiloak

**Igantzikoko bestak**  
948 63 74 11

*Ongi pasa bestak!!*

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESAKA  
IMANOL TELLETXEA ZUZAYA

Tel. 63 74 60      31770 Lesaka (NAVARRE)

Gas-olioa etkez etke banatzen da  
Kotxe berri eta zaharren salmenta  
**BESTA EDERRAK PASA !!**

**LA VILLA**  
JATETXEA

Urte osoan, ortzirak,  
larunbat eta igandetan afariak

**ongi pasa bestak!**

Tel.: 948 63 72 90 • IGANTZI

# Igantzikoko iraila



## ortzirala 28 bezpera eguna

- 17:00 Mus eta partxis lehiaketa.
- 20:00 Altxaferoa (Igantziarra 2007'ek piztua) eta ezkil jotzea.
- 00:30 Su artifizialak.
- 00:30 Dantzaldia Jalisko Band taldearekin.



## larunbata 29 San Migel eguna

- 10:30 Argisoinuak txistulariekin.
- 16:00 Meza nagusia San Migelen ohorez, herriko abesbatza, dantzari eta txistulariekin batera.
- 20:00 Bandera arbola eta ezpata-dantzariak.
- 20:00 Herri kirolak. Herri herriko Nafarroako finalak. Nafarroako emakumezko arpanlari txapelketa.
- 00:00 Dantzaldia Gaubela taldearekin.
- 01:00 Zozongo perkusio taldea.





igandea 30 ezkonduen eguna

- 8:30 Betizuak.
- 10:00 Argisoinuak gaiteroekin.
- 10:00 Herriko haurren pilota partidak.
- 11:45 Gazte eta afizionatuen arteko pilota partidak.
- 17:00 Dantza jazz emanaldia.
- 18:00 Bertso pilota, Lizaso eta Mañukorta bertsolariekin.
- 20:30 Muxikoak. Herriko dantzak.
- 20:00 Dantzaldia Modesto akordeoilariarekin.



astlehena 1 haurren eguna

- 10:00 Argisoinuak txistulari eta trikitilariarekin.
- 10:30 Gaztelu puzgarriak eta haurrentzako jokuak.
- 12:00 Betizuak txarangarekin.
- 14:00 Herri bazkaria.
- 15:30 Gaztelu puzgarriak eta haurrentzako jokuak.
- 17:30 Bonba japoniarrak.
- 18:00 Berendua.
- 20:00 Asto lasterketa.
- 20:30 Dantzaldia Modesto akordeoilariarekin.
- 23:30 Dantzaldia Modesto akordeoilariarekin.
- 00:30 Galtza jario lasterketa



igantziko harrobiak

Besta ederrak pasall!

948 637 288 • IGANTZI

**OKILA**  
 zurgindegia

- tarimak, leihoak, steak, eskalera
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein  
 Mikel Arburua



On egin janak eta kalterik ez edanaki!

948 637 249 • Piedade gaina z/g  
 IGANTZI



**Jose Canabal**

Instalazio elektrikoak  
 orokorrean

ARGIZTAPENA  
 MATXURAK • ALARMAK

ONGI PASA BESTAK!!

☎ 666 57 58 99 • 948 637 541  
 IGANTZI  
 josecanabal@tiscali.es

**JOSE AGERRE**  
 pinturak



PINTURA LANAK  
 OROKORREAN

Kanpo eta barneko pintura  
 Barnizatze eta lakatzeak  
 Parket Flotatzailas jartzen dugu

818 221 528  
 948 638 144  
 IGANTZIKO BENTAK

**Zaritza**  
 belardenda

MASAJISTA  
 MEDIKU NATURISTA  
 KONTSULTA

ONGI  
 PASA  
 BESTAK!

Legua, 1 behea  
 31780 BERA  
 Tel.: 948 63 06 52



1951tik lentzeria-etxea  
*Casa Cambra*

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

albornozak • mantelak • edredoi nordikoak • kuxinak  
ohe estalkiak • maindireak • toailak • edredoi-azal nordikoak

**mantetan eskaintza zabala**



Igantziko Udalak  
besta onak opa dizkizue  
igantziar eta bisitari  
guztiei





## ARESO

### Guztira 25 ikaslek hasi dute ikasturte berria eskolan

Sei haur hasi berri dira, eta  
bakarra atera

**Juana Mari SAIZAR**

Bukatu ziren oporrak ikasleentzat ere, eta gaztetxoek eskolan hasi dira dagoeneko. Aurtengo ikasturtean sei haur hasi berri dira, eta beste bat atera. Denera 25 haur daude bigeletan banaturik, eta bakoitzean irakasle bat dago, haundiekin Mikel Ilarregi, eta txikiekin, berriz, Lierni Sagastibel-tza, joan den urteko irakasleak. Hauxez gain, logopeda bat ere bada-

go, eta hainbat ikasgaietarako Leitzatik irakasle ibiltariak etorriko dira.

#### **Pistetan moldaketak**

Joarbe enpresak bi pista berritu ditu baso atera behar dela eta. Bata Merkutik Meru alde-ra doana, eta bestea, Merkutik Goñiko gaine-raino doana. Azken pista horrek, asko erraztu du egurra museotik etxera ekartzea, orain



ARGAZKIA: JUANA MARI

#### **Ikasturtea hasi duten sei ikasle berriak.**

txukunduta ongi baita-go.

#### **Ehiza garairako prestaketak**

Ehiza garaia hurbil-tzen ari da, eta sasoi ho-

rretarako gauzak pres-tatzen hasi dira dagoe-neko herrian. Lanak Usoa Ehiztari Elkartea-ren artean banatu di-tuzte, esaterako, pos-tuak garbitu, zahartua

baldin badaude berriro egin, andamioak pinta-tu eta abar. Aurreko as-tean hasi ziren lan hauek egiten, eta laster egin-go da ehiza postuen en-kaatea.

## ITUREN



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

#### **Haurren parke berria**

Eskol zaharren ondoan zegoen parkea berritu egin dute. Aurrekontua 10.551,04 eurokoa da —BEZa barne— eta horren %50a Nafarroako Gobernuak eman du. Zolako zementoa, berriz, auzolanean egin da.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

#### **Ikasturte berria**

Ikasturte berria 50 ikaslerekin hasi du aurten Iturengo eskolak. Eskolarekin batera ikastaro ezberdinetan hartuko dute parte hurrek arratsalde nahiz asteburuetan (pilota, pande-reta, trikitixa, akordeoia, dantzak...). Datorren ekaina bitarte la-nean hasiak dira. Animo eta zorte on ikasketetan!

## LEITZA

# Urrian hasiko dira ikasturte berriko ikastaroak kiroldegian

Izena emateko epea irailaren 24an zabalduko da

**Joseba URKIOLA**

Igerilekuak irailaren 9an itxi bazituzten ere, 2007-2008. ikasturteko kirol ikastaroen programazioa jada egituratua dago. Eguneroko buru-hausteak alde batera utzi eta izerdi apur bat bota nahi duenarentzat, ikastaroen aukera zabala eskainiko da: Pilates, Batuka/GAPB, Aero-fitness, gazteentzako muskulazio gidatua... Hauetaz gain, Multikirolak, Yoga, Aerobika, haurrentzako gimnasia eta haurrentzako karateak... Izena emateko epea irailaren 24an zabalduko da eta ikastaroak, urriaren hastapenetan abiatu. Interesatuak kiroldegira jo beharko dute, eta beste-lako xehetasunez jabetzeko, berriz, 948 510719ra deitu.

## Larunbatean 'Aurrera Eguna'

San Tiburtzio Donearen jaiak amaitu berriak diren arren, Aurrera Kirol Elkarteak jai berri batekin heldu zaigu. Nabariko da, herriko ki-

rol elkarteak une latzak atzean utzi zituela eta garai alaituak bizi dituela. Horren adibide, larunbat honetarako antolatatu duen *Aurrera K.E.aren Eguna*.

Egitarau oparoa antolatatu dute. Jarduera gehienak bazkideentzako dira, baina bazkide ez direnek ere, jaiaz zipriztintzeko parada izanen dute. Hona hemen iragarrita dagoena:

**09:00** Diana

**10:00-14:00** Rokodromo eta tirolina

**11:00** pilota partidak plazan

**12:00** dantza saioa plazan

**13:00** poteoa eta Incansables txaranga

**14:30** Bazkideen bazkaria Karrapen.

Ondotik, ingurutxoa eta Incansables txaranga

**21:30** Luntxa Aurreran Gero, Agerralderekin dantzaldia Aurrerako atarian

Egun guztian, argazki eta dokumentu zaharrak ikusgai egoitza.



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

## Jendetsua aurtengoan ere Talo Eguna

Zarautzen Euskal Jaiak eta Donostian arraunaren egun handia izanagatik ere, irailaren 9an Leitzako plazara jende ugari gerturatu zen. Oriok garaipen handia lortu zuen egunean, Leitzan II. Talo Eguna ospatu baitzen. Asko izan ziren, Villabona eta Saralegi talogileek egin-dako taloak dastatu zituztenak. Baina dena ez zen janaria izan. Begiei atsegin apur bat eskaintzeko, erakusketa desberdinak ere present izan baitziren. Interes handiena piztu zutenen artean, arto zuriztearen erakusketa eta herriko 5 jatetxe eta taberna desberdinek karrapen ikusgai ezarri zituzten plater originalak. Hauetaz gain, Plazaola Partzuergoko kide diren artisauek ugari ere, eskuekin ereindako altxor preziatuak ikusgai ezarri zituzten.

## Pentathloi frogak irailaren 29an

Donostiako uretan hasi eta Uitziko pestetan amaitu daitekeen frogak berezia, irailaren 29an egingen da. Horretarako, parte hartzaile guztiek 14:30erako Donostian egon beharko dute. Uretako lanak amaituta, bizikleta hartu eta Ibarra Tolosatik banatzen duen bidegurutzeraino erritmo lasaia joan beharko dute. Puntu honetatik aurrera, umorea alde batera utzi eta bakoitzak duen guztia eman beharko du. Hori, Leitzako Sagardotegiraino izanen da. Hor bizikletak utzi eta Gaztainaga tabernaren parean dagoen helmuga bitarteko lanak lasterka egin beharko baitituzte.

Pentathloia osatzeko geratzen diren beste bi frogak, Leitzako taberna desberdinetan eta Uitziko San Miguel jailetan gauzatuko dira.

## Leitzako III. Pilota Txapelketa

Heldu den irailaren 30ean jokatuko dira Leitzako III. Pilota Txapelketaren finalak. Bost asteren ondotik, hilaren 30eko goizak esanen du

aurtengo sariketako garaileak nor izanen diren. Abuztuaren 31n hasi zen, eta orotara, 96 pilotarik parte hartu dute. Aurreko bi urteetan bezala, 2007an ere, Euskal Herriko elkarte garrantzitsu ugariak pilotariak etorri dira leitzaldera. Guztien helburua, ahalik eta lan txukunena egin eta ahal bezain 30eko final handira iristea. Batzuk bidean geratu dira eta besteak irailaren 30eko hitzordu nagusian ikusiko ditugu. Amazabal pilotalekura hurbiltzen denak sei final ikusteko aukera izanen du.

gaztelu scl  
iturgintza  
kalefakzioa • saneamendua • gasa  
Telefonoa: 948 510 086 - 948 510 156  
Faxa: 948 510 856  
LEITZA

Mailpostea Buzoneos  
Leitzako bidex9 • DONEZTEBE • 948 592 313  
inprimategia  
publizitatea  
diseinu grafikoa

ttipi  
ttapa  
☎ (0034) 948 635458



# Baztanentzat aberastasun iturri den proiektua



Artesiagako Magnesita da MAGNAk Erdizen magnesita ateratzeko duen proiektu berria. Baztan osoarendako motore ekonomikoa da, ingurumena errespetatzen duen proiektua eta Baztango jendeentzat etorkizun iraunkorra garantizatzen duena.

Proiektu honek aukera ematen dio MAGNari aparteko natur baliabide honen irabaziak Baztango jendeekin partekatzeko, euren bizian integratzeko eta elkarrekin aurre egiteko etorkizunari.



## ABERASTASUNA



→ Artesiagako Magnesita **ongi ordainduak diren lanpostu finkoen** sortzailea da. Zuzenean 35 lanpostu eta zeharkako 150. Mekanikariak, soldatzaileak, pintatzaileak, elektrikariak, perforistak, garraiolariak, garabilariak, eraikuntza zibila, informatika, topografia, ingurugiro ingeniariak, ostalaritza, elikadura sektorea, burdindegi sektorea.

→ Baztango gazteriar **prestakuntza** eskaintzen die, inguruko industri sarea bultzatzen du eta lan finkoa bilatzeko berriz eskualdetara joan behar izatea saihestuz.



## INGURUGIROA



→ Artesiagako Magnesitarekin lurzoruak eta urak deskontaminatzen ahal ditugu, hobeki ongarrizatuak diren soroak erdietsi etaazienda azkarragoak.

→ Ingurumen kalitatearen **kontroleko filtro bikoitza** pasa behar du: Nafarroako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aitzinean eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aitzinean. Filtro bikoitz horrek bermatzen du prozesuak ingurumena errespetatuko duela.

→ Teknologiarik **aurreratuena ingurumenaren zerbitzura**. Uhal garraiatzaileen karentza, leherketak PRIMADET sistemarekin, pisten etengabeko asfaltatze eta ureztatzeak eta ingurumenean berreskuratze dinamikoa bermatu egiten dute eragin akustiko eta bisual minimoena duen erauzketa.

→ Artesiagako Magnesitak erreibua emanen dio eskualdean errotze handia duen industriari, haren etorkizuna bermatuz eta gazteei etorkizuna eskainiaz euren bailaran bertan.

## ETORKIZUNA

→ **Epe ertain eta luzerako proiektua**. Erauzketak gutxienez 20 urteko ustiatze-epaia bermatzen du, baina balkeko industria eta enpresa munduan izanen duen eraginak lagunduko du enpresa berriak sortzen, orain daudenen jardura abokitzen eta urte aunitzetan material eta langileen eskaera sustatzen.



### Artesiagako Magnesita

ABERASTASUNA | INGURUGIROA | ETORKIZUNA



## UDAL HAUTESKUNDEAK

# Urriaren 28an egingen dira udal eta kontzejuetako hauteskundeak

Arano, Donamaria, Oitz eta Zubietan eta Bertizaranako kontzejuetan

## ttipi-ttapa

Maiatzaren 27ko hauteskundeetara zerrendarik aurkeztu ez zen herri eta kontzejuetan, edo aurkeztutako zerrenda baliogabeta izan zenetan, heldu den urriaren 28an egingen dira berriz ere hauteskundeak, beti ere, zerrendak aurkezten bada. Gure eskualdeari dagokionean, lau herri eta bertze hiru kontzejuetan egingen dira. Hain zuzen, Arano (141 biztanle) Donamaria (414 biztanle), Oitz (150) eta Zubietan (297), eta Bertizaranak bere baitan hartzen dituen hiru kontzejuetan. Hala, 50 biztanletik goitiko bertze herrietan bezala, Legasan (257 biztanle), NARBARTEN (322) eta OIEREGIN (97) bakoitzean Ba-



ARTXIBOA

**Maiatzean zerrendarik aurkeztu ez zen herrietan bertze aukera izanen dute urriaren 28an.**

tzordeko lehendakaria eta lau bokalak aukeratu beharko dituzte.

Zerrendak aurkezteko maiatzeko hauteskundeetan bezala egin

beharko da, eta hauteskunde kanpaina urriaren 12tik 26ra egingen da.

Espainiako Ministroen Kontseiluak abuz-

tuaren 31n egin zuen hauteskundeetarako deialdia, eta Nafarroako Gobernuak irailaren 3an onartu zuen, Foru Dekretu bidez.

## FLASH

**Trafiko istripuetan hildakoen kopurua %31 jaitsi da Nafarroan lehen hilabeteetan**

Oro har trafiko istripuetan hildakoen kopurua goiti egin badu ere, bertzelakoa da Nafarroaren kasua, lehen-dabiziko sei hilabeteetan %31,71 murriztu baita kopurua. Abuztura bitarte, 28 lagun hil ziren Nafarroan (4 urtarrilean, 3 otsailean, 2 martxoan, 8 apirilean, 2 maiatzean, 5 ekainean, 2 uztailen eta 2 abuztuan). Joan den urtean, garai berean, 41 izan ziren hildakoak, eta duela bi urte, 2005ean, 59. Aipatu, trafiko istripuei dagokienez, Europar Batasunak 2010.era begira ezarritako helburua bete dela dagoeneko Nafarroan, hau da, 2000. urtearekin konparatuta, istripuen kopurua %50 murriztea. 2000. urtean 118 lagun zendu ziren Nafarroan, joan den urtean, berriz, 55 pertsona.

**IRAILA**  
autoaren hilabetea  
10%eko deskontua  
autoko aukerak guztietan

**POTTOKI**

Polakortu Pota, 7 - Ibilera  
31000 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tfn: 948 581 581  
www.pottoki.com  
info@pottoki.com  
948 581 581  
948 581 581

**Lanchas**

PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfn: 948 430 735 - 407 406 781

**Zerbitzu ofiziala BLOK BAT tailerra**  
ELIZONDO • Tfn: 948 580 898

**NAFARROAKO QUAD eta ATV LANTEGI OFIZIALA**  
www.autoquadxl.com • Tfn: 948847512

**ANTXITONEA**  
Trinketea

**Jatetxea - Ostatua**  
**Hotela - Trinketea**

**Menu Bereziak**

Braulio Iriarte karrika  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853



**BAZTAN**

## Kanal ireki batek Arraiozen uholdeak murriztuko lituzkeela ebatzi dute adituek

Tragsa enpresa publikoak Arraiozen uholdeak saihesteko txostena bidali dio Udalari

**Maite OTEIZA**

Maiatzaren 4ko uholdeek kalte handiak eragin zituzten Baztanen, eta gehien kaltetutako herrietako bat Arraiozen izan zen. Hala, etorkizunean izan daitezkeen uholdeei aitzin egiteko, neurriak hartu nahi dituzte. Udalak eskatuta, Tragsa enpresa publikoak Arraiozen uholdeak saihesteko azterketa egin du, eta horren arabera, neurriak egokiena, ibaiari kanal ireki bat egitea litzateke, Mardea auzoaren parean. Gisa berean, arriskutsuenak diren zatietan bazterrak egonkortzea ere aholkatu du aditu taldeak bere txostenean.

Kanala lurazpian egitekotan, berriz, ibaiak eraman dezaken solidoreen pisua aintzat hartzeko gomendioa ere luzatu dio Udalari. Azken aholku gisa, sedimentuei eusteko egitura bat eraikitzea ere ongi legokeela dio azterketak.

**Hiru urteko 95 ikasle berri hasi dira Baztanen**

Ikasleendako uda akitu da eta berriz ere, ikastetxeetan mugimendua nabaria



ARGAZKIA: JOSE LUIS KARRIKABURU

**Maiatzaren 4ko uholdeek kalte handiak eragin zituzten Arraiozen.**

da. Agian ez denak aurpegia alaiekin, lehenbiziko aldiz eskolara ganen direlako.

Azken urte hauetan Baztango ikastetxeetan matrikulazio kopurua gora doa, eta zenbait ikastetxeetan gero eta nabariagoa da; espazio aldetik gero eta gela gehiago behar direlako, eta irakasle gehiago behar direlako.

Aurtengoan, 3 urteko 95 ikasle berrirekin abiatu du ikasturtea Baztanek: Amaiurren 2; Azpilkuetan 2; Erratzun 4; Arizkun 9; Elizondoko San Frantzisko Xabier ikastetxean 28; Elizondoko Baztan ikastolan 22; Gartzainen 3; Iru-

ritan 15; Arraiozen ez da 3 urteko ikaslerik hasi; Oronoz-Mugairin 6; Zigan 1 eta Almandozen 3.

**Bisita gidatu arrakastatsuak Amaiurren**

Herri ttikia izanagatik ere jendearen eta batzere turistaren arreta erakartzen du Amaiurren. Uztailaren 26tik irailaren 2ra bitarte, ortzegun eta larunbatetan bi orduko bisita gidatuak egiten aritu dira, eta saio horretan 332 lagun pasatu ziren herritik. Hemen aitzineria ere izan da herria ezagutzeko aukera ere. Iraila bukatu arte ordutegiak

berdin segituko du, ortzegun eta larunbatetan 11:00etan. Urriatik aitzinera, ordea, larunbatetan 11:00etan egiten dira bisita gidatuak. Informazio gehiago nahi izanez gero, eta erreserbatzeko Serorategira deitu behar da, 948 453490 telefonora.

**Urpekaritza ikastaroa**

Getariako Ksub urpekaritza zentroak antolatuta, urpekaritza ikastaroa egiten da Elizondon, heldu den asteartean, hilak 25, hasi eta urriaren 7a bitarte. Ikastaroak alderdi teorikoa eta praktikoa izanen ditu; batetik, mate-

rial pedagogikoen birtatez, teorian jakin beharrekoa azalduko da, eta bertetik, igerilekuan eta itsasoan praktikak egiten dira. Ikastaroa 12 urtetik goitikoentzat dago irekia eta 390 euro ordaindu beharko dira (material guztia kontuan hartuta). Ikastaroaren amaieran, munduan erabili den PA-Diren Open Water Diver nazioarteko titulua eskuratuko da. Izen emateko: 943 140185, 627930330 eta 678903678. Informazio gehiago [www.ksub.net](http://www.ksub.net) web orrian.

**Mugak berrikusten**

Urtero bezala, Baztango Udaleko zinegotziek eta Udaleko mendi-guardek Baztan eta Lapurdi eta Nafarroa Beherearen arteko mugariak berrikusi dituzte iraila erdialdean. Hiru egunez, Baztanek dituen 50 kilometroko mugak berrikusi dituzte; Sarako 56. zenbakiko mugarritik hasi, eta Senpere, Ainhoa, Ezpeleta (Lapurdi), Itxaso, Bidarrai, Baigorri, Banka, Aldudes eta Urepeleko 140. mugarriraino (Nafarroa Beherea).

**SOULE**  
hileta artea  
Tfnoa. 948 453 444  
Mug.: 629 659 583  
ARIZKUN

**Eskisaroi**  
Jaimé Urrutia  
Tfnoa: 948 580 013  
ELIZONDO

## BAZTAN

# Alkoholiko Anonimoak Elkarteak taldea sortu du Elizondon

Urriaren 4an talde berriaren aurkezpen ekitaldia egingen dute

Maite OTEIZA

Bidelagun Elkartearen eskutik, Alkoholiko Anonimoak elkarteak erreperazio talde bat sortu du Baztanen. Talde honetan parte-hartzea dohainik da, ez da inongo kuotarik ordaindu behar, eta parte-hartzaileen anonimatoa ere zainduko da. Bilkurak egiteko hitzordua ere zehaztua dute dagoeneko: asteartero, 19:00etatik 20:30era, Bidelagunen egoitzan, Santiago karrikako 58. zenbakian (Elizondo). Informazio gehiago jasotzeko Iruñeko telefono hauetarako dei daiteke: 948 241010 edo 609478341.

Talde berriaren aurkezpen ekitaldia, heldu den urriaren 4an egingen dute Arizkunenea Kultur Etxean, 19:30ean. Informazio saio irekia izanen da, erakunde hau ezagutzera emateko gure eskualdean, nahiz eta Nafarroan eta Es-

painan aspalditik dihardun.

Informazio hitzaldi honetan, bertzeak bertze, hauek egonen dira: Alkoholiko Anonimoak eta Al-anon (alkoholiko senitartekoak) elkartetako ordezkariak, Baztango alkatea eta Ongizate zinegotzia, Elizondo, Doneztebe eta Lesakako Osasun Zentroetako zuzendariak, Benedicto Agirre, Magdalena Ojanguren eta Padre Benito Menniko zuzendari Manuel Martin eta bertako laguntzaren koordinantzailea den Jose De Blas, Elizondoko apezka Javier Azpiroz, Elena Urtsun Udaleko gizarte-laguntzailea eta Elizondoko Osasun etxeko gizarte langilea Arantxa Irazoki.

**Martin Garde Bertz Partzuergoko lehendakari**

Baztango Udaleko zinegotzia den Martin



UTZITAKO ARGAZKIA

## Platinozko Ezteiak

Ez dira egunero betetzen 65 urte ezkondurik, ez horixe! Baina Fermin Otxandorena Petrikorena eta Javiera Arrijuria Jaramillo lekaorzarrek 65 urte bete dituzte elkarrekin, Platinozko Ezteiak. Zorionak zuen seme-alaba, biloba eta birbiloben partetik.

Garde da Bertziko Partzuergo Turistikoko lehendakari berria. Orain arte aritu den Andres Etxenike Bertzaranako alkatea, lehendakariordea izanen da hemendik aitzinera, eta Patxi Altzu Iturengo Udaleko zinegotzia idazkaritzaz arduratuko da.

Gaur egun, Bertziko Partzuergoak 13 udal hartzen ditu bere baitan: Zugarramurdi eta Urdazubi, Arantza, Igantzi eta Etxalar, Baztan eta Malerrekako hainbat. Aipatu, joan den urte bukaeran, bertze dorena bat herrik utzi egin

zutela partzuergoa, nahiz eta dagoeneko bartzuk bueltatzeko asmoa iragarri —Sunbillak berriro sartu da—. Hasiarako taldea osatzea izanen da partzuergoaren helburuetako bat, baita bertzelako jardunaldiak antolatzea ere.

## Japoniako katedradunak Arraiozen laxoari buruzko jardunaldietan

Irailaren 15ean Japoniako eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) katedradunen to-pagune izan zen

Arraioz. Euskal Herrian barna ibili dira hemengo herri kirolak aztertzen, eta horien artean, laxoa. Aditu taldearen arabera, laxoa pilota joko guztien aita da, eta garai modernoetara hobekien egokitu den modalitatea da. Jardunaldi gehienak Gasteizen egin baziren ere, Arraiozen Tiburcio Arrazoak jokoaren ezaugarriak azaldu zituen, eta bertzeak bertze, paxakari buruz aritu zen solasean. Ondotik, Arraiozko pilotariak eta Doneztebe-koek laxoa partida jokatatu zuten.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENTZIA

- Zurich Asegurua
- Auta, etxebizitza, irripa eta botza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nafara eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Erenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserri, botza, pisu, etab... salmenta eta alkatari
- Gestoria

ibigailuen transferentziak, gatzeko karnetaren berriak eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO  
Tfnoa eta Faxa: 948 580 804  
anzabal@anzabal.com

BURKAITZEA

• ostatu  
• erretegia

Zugarramurdi bidea, 3 km  
948 599 280 - URDZUBI

ttipi  
ttapa

☎ (0034) 948 635458

**Pierresenea**

OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturrizteko bidea · Tfnoa: 948 592 043  
ORONKOZ · MUGAURI



**BAZTAN**

## Anizko Arrosarioko Amabirjin bestak urriaren 6tik 8ra

Egun haundian herri kirolak izanen dira arratsaldez

### Launbeta 6 Bezpera

11:00etan ezkil jolaziak eta altxaferuak. 11:30ean haur jokoak. 14:00etan haurrendako bazkarie. 15:30ean gaztelu puzgarriak. 18:00etan txokolate jattia. 19:00etan dantzaldie MIKEL SALABERRI musikariarekin. 20:45ean baztan-zopak. Ondotik dantzaldia MIKEL SALABERRIrekin. Akitzeko zinger jatea.

### Igendia 7 Arrosarioko Amabirjinaren Eguna

11:00etan xistulariekin kalejira. 12:00etan Meza Nausie. 13:00etan otordue. 17:30ean herri kirolak, proba konbinatuak. 18:00etan aikora apostue. 19:00etan kantaldie. Akabailan afarie.

### Astlehena 8 Adiskidetasun Egune

11:00etan mus txapelketa. 14:00etan zikiro jattia, JOXE ANGEL akordeoilariak alaituta. 17:00etan ginkana. 21:00etan zinger jattia. Akitzeko GIZAJOA NI, beste akabera emateko.



AITOR AZKARATE ETA MAITANE MARITORENAK UTZITAKOAK

Argazkiei begiratu bertzerik ez, aitzineko urtetako bestak zein ongi joan ziren errateko; aurtengo bestetan ere ez da girorik faltako. Beheitiko argazkia orain 3 urteko zinger jatian ateratakoa da.

**FRRETEGIA ORDOKI LIKOREAK**  
Parrillan egindako haragi eta arrainak  
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 ARIZKUN

*Okindegia* *Jatetxea*

# Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata  
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)  
Especialitatea parrillan erretako jakietan  
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labeen errea, goxo goxoa!

Ordoki Industriaidea  
Tfnua: 948 453 403  
31713 ARIZKUN

## URDAZUBI-ZUGARRAMRUDI

# Telefonicak antena berria paratuko du Gorramendin mozketak saihesteko

Urtarriletik martxora bitartean denbora luzeko hiru mozketak izan ziren

## Margari eta Koro

Telefonicak antena berra paratuko du Gorramendin, Argaindoita eta Otararteko estazioen artean. Horrela, urtarrilean, otsailean eta martxoan Urdazubin eta Zugarramurdin izan ziren etengabeko zerbitzu hutsegiteak saihestu nahi ditu. Paratuko den antenarekin, kalte gehien sortzen den Gorramendiko estazioko arazoak ekidinen ziratekeen, eta hala, Urdazubiko zentralako zerbitzua hobetu. Gisa berean, Gorramendiko basea indartzeko bertzelako neurriak ere hartuko dira: ekipo elektrogenoa eta gaitasun handiago duten bateriak paratu, eta gaintentsioko kargadoreak jarri segurtasun handiagoa izateko, des-



ARTXIBOKOA

**Urdazubi-Zugarramurdiko herritarrez gain, Dantxarinearako supermerkatu eta saltokiak kalte handiak izan zituzten telefonia mozketen ondorioz.**

karga atmosferikoak gertatzen direnerako.

Aipatzekoa da, Uxue Barkos NaBaiko diputatuaren eskariz, Espainiako Gobernuak Telefonicari gertatutakoa ar-

gitzeko eskatu ziola; telefonia enpresak, bere aldetik, «*eskualdeko orografia zailak eta eguraldi txarrak konponketak aunitz zaildu zituela*» argudiatu zuen. Horren ai-

tzinean, neurriak hartzeko eskatu zioten Telefonicari, eta horren bitartek datoz hartutako neurriak. Dena den, enpresak ez du isunik ordaindu beharko.

## Kenpo-Kai ikastaroak Urdazubin, Leorlasko eskolan

Gure herrietan sekulan ezagutu ez den kirol bat emateko aukera dugu ikasturte honetan: Kenpo-Kai.

Kirol hau defentsa pertsonaleko arte martzialen artean dago, eta laburbilduz, judo eta karate arteko bilduma da. Oiarzungo Honbuko irakasle batek ematen du ikastaroa. Eskolak Leorlaseko eskolan izanen dira egun eta ordu hauetan: helduek, ortziraletan, 20:00etatik 21:30era; haurrek: larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara. Izena emateko deitu 656759566 telefonora.

**Iñaki Alzulet margoak**  
 Fabrikatzaile - Somaketa  
 Dekorazio (akabatu, berrakabatu...)  
 Pintura - Lakatze eta berrakabatu kalitate  
 Karmela Etxe - Landibar Auzoa - 31711 URDAZUBI  
 Tfnoa: 659 862 417

**txokoberri**  
 Aluminioan espezializatuak  
 • Aroztegi Metalikoa (telhoak, steak, barandak...)  
 • Parket  
 Eneko eta Alfredo / Donamaria / Nafarroa Tel: 618 551 924

HERBIZINGO ETXEBE  
 EDZENTEGIK  
 CAFÉ DE LA MAIRIE  
 T: 0559547519  
 Maizak eta Vainique  
 KABA

**VENTANAS ARAMBURU**  
 Ongizate termiko eta akustikoa  
 Aluminioa egur koloretan  
 Gabiria, 42 IRUN  
 Tel.: 943 62 22 57 • Fax.: 943 62 38 11

**BAR-OSTATVA MON**  
 ZATOZTE TRAGOA EDATERA  
 ESTANCO - TERICO BENDA  
 ANZEN-BORDA  
 VRØIX - VRØIZVBI



# Bortziritako

# LUDOTEKA

## Denbora librea probextu nahi?

Bortziritako ludoteka da haurrek beren denbora librean kulturarekin eta harreman afektiboekin jostatzen eta gozatzen ikasteko gune bat, solidaritatean eta berdintasunean oinarrituko dena. Bidenabar, zerbitzu honen bitartez, gurasoei aukera bat eman nahi diegu seme-alaben heziketa bateratu ahal izateko gurasoen euren lanarekin edota denbora librearekin.

Bortziritako ludotekak koedukazioan ikasteko eta elkartzeko gune bat izan nahi du, eta bertan parte hartuko dutenak bultzatu nahi ditu balore solidarioak praktikan jartzeaz gaitera, errespetuaren eta elkar laguntzaren garrantziaz gogoeta egitera.

### Urriaren 1etik Abenduaren 20ra arte:

- BERAN: Astearte eta Ostegunetan 17:00-18:30
- IGANTZIn: Astelehenetan 16:30-18:00; Asteazkenetan 14:30-16:00
- LESAKAN: Astelehenetan 16:30-18:00; Asteazkenetan 14:30-16:00
- ARANTZAn: Astearte eta Ostiraletan 16:30-18:00
- ETXALARren: Asteazken eta Ostegunetan 16:30-18:00

Kuota: 25€

**Izena emateko:** Irailaren 28ra arte,  
telefono honetara: 948635036/662251848  
[bortziri\\_berdintasuna@yahoo.es](mailto:bortziri_berdintasuna@yahoo.es)  
Plaza mugatuak

Antolatutako ekintza guztiak Bortziritako Jendarte Zerbitzuen Mankomunitateak kontratatutako Dindaila Fundazioko pertsonal adituak zuzentzen ditu



BORTZIRIETAKO  
BERDINTASUN  
ARLOA



Diruz laguntzen du:  
Nafarroako  
Berdintasunerako  
Instituta



## SENPERE

# Jean Bordaxar xiberotarra entzunen da Ibarrungo bestetako kantaldian

Ipar Euskal Herriko pilotariak nagusitu dira Gantxikiko pilota txapelketan

## Franck DOLOSOR

